EZTABAIDA: ZURE GUSTUKOA DA REALEKO PRESIDENTE BERRIA? /7

# Goienkaria






EGUBAKOITZA • 2001eko martxoaren 30a • II. urtea • 16. zenbakia • DOAN BANATZEKO

**ERDIALDEAN, GOIENAREN GAINEKO GEHIGARRI BEREZIA**

**Goienka2a** Shot! Debagoieneko grabazio-estudioa

**ANDONI GARTZIA, MEKALKIKO GERENTEA**
*"Gauzak ez dira berez ondo ateratzen, baizik eta ahalegin inteligentearen ondorioz"* /9

## Goiena elkarteak aurkezpena egingo du bihar Arrasaten

Goiena Kooperatiba Elkartearen lehen batzar nagusia egingo da bihar, zapatua, Arrasaten, Euskadiko Kutxako egoitza nagusiko aretoan. Elkarte sortzaileek, hau da, bailarako euskara elkarteek, lehen aldiz izango dituzte alboan bazkide laguntzaileak eta lan-bazkideak. Batzar nagusia amaitu ostean, Goiena egitasmoa aurkeztuko dute prentsaren aurrean, eta 12:00etan, ekitaldi berezia egingo dute. Hantxe izango dira Goienako buruak, Debagoieneko alkateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Horiekin batera, hainbat pertsona ezagun ere. /3

## Eskoriatzako Ganuza etxea zapatuan inauguratuko dute

Urteetan bertan behera utzita egon den Ganuza etxea bihar, zapatua, inauguratuko dute Eskoriatzan. Goitik behera berritu ondoren, Jose Arana-Almen ikastolako egoitza da gaur egun. Astean, hainbat ekitaldi izan dira, eta esan bezala, bihar arratsaldean egingo da inaugurazio ofiziala. /5

## Gaztetxea ixteko agindua eman du Aretxabaletako Udalak

Astebetean gaztetxea utzi beharko duela jakinarazi dio Aretxabaletako Udalak Gazte Asanbladari, dekretu baten bidez. Ordutegia eta erabilera finkatzeko udalak eta gaztetxeko ordezkariek adostutako hitzarmena ez dela bete, eta apirilaren 2an gaztetxea itxiko duela azaldu du udalak dekretuan. /5




KORRIKA 12 DEBAGOIENEAN ZEHAR

# Badator Korrika!

Eguen arratsaldean abiatu zen Gasteizen Korrika 12, euskararen aldeko lasterketa. Antonio Carmonak, Alaves futbol taldeko kapitainak, eroan zuen aurreneko lekukoa. Astelehen iluntzean, berriz, Debagoienera helduko da. Soraluzetik etorriko da, eta Bergara eta Antzuola zeharkatu ondoren, Zumarragarako bidea hartuko du. Handik, Legazpira eta Oñatira. Gauerdian helduko da Oñatira, eta Elorregiko bidegurutzetik Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga zeharkatuko ditu martitzeneko ordu txikietan, Arabara abiatu aurretik. Korrikari ongietorria egiteko, hainbat ekitaldi iragarri dira asteburuko, astelehenerako eta martitzenerako. /3



| | |
|---|---|
| **Astelehena, 2** | |
| Soraluze | 20:00 |
| Bergara | 21:12 |
| Antzuola | 21:50 |
| Urretxu | 22.31 |
| Zumarraga | 22:43 |
| Legazpi | 23:14 |
| Oñati | 00:33 |
| **Martitzena, 3** | |
| Arrasate | 01:39 |
| Aretxabaleta | 02:22 |
| Eskoriatza | 02:41 |
| Leintz Gatzaga | 03:24 |

HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • SAILKATUAK/8 • KIROLA/10 • NON ZER/16-17 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

# Hezkuntzaren mapa

## Euskara da nagusi, eta ikastetxe berriak jaio dira

IKER BARANDIARAN

Debagoienak zeresan handia eman du hainbat arlotan. Horien artean, ezin da ukatu lan eta hezkuntza esparruek azkenengo bi hamarkadetan oso arlo desberdinetan jazotako eraldaketa prozeduran izan duten garrantzi handia.

Hainbat arlotan zenbakiek gorantz egin badute ere, demografiaren kasuan, izugarrizko jaitsiera gertatu da 70eko hamarkadatik gaur egunera arte. Esaterako, 1973an, eskualdean 1.341 ume jaio ziren, eta 1999an, 514 besterik ez.

Bestalde, izugarri hazi da euskarazko eskolaratzea. Hain zuzen ere, 1975ean, OHOn zegoen gaztetxoen kopurua nahiko urria zen (%15 D ereduan –euskaraz–) eta %85 A ereduan –gaztelaniaz–), egun ia desagertuta dago gaztelania hutsezko eredua, eta bailarako OHOko ikasleen %25 B ereduan –elebidunean– dauden bitartean, %75ek euskaraz ikasten dihardute.

Horrez gain, 1975-1976 ikasturtean, eskola publikoa nagusi zen (%50,23), eskola pribatuek %26,58 eta ikastolek %23 biltzen zuten. 1999-2000 ikasturtean, haur hezkuntza eta lehen irakaskuntzako datuen arabera, ikastolek %57 zuten, eskola pribatuek %12 eta eskola publikoek, aldiz, %31. Era berean, zenbait ikastetxe desagertu, berriak sortu eta beste batzuk batu egin dira eta Arizmendi ikastola sortu dute.

**IKASTETXEEN ERALDAKETA**

Azken bi hamarkadetan, eskualdeko hiru ikastetxe erlijioso ikastola bihurtu dira: Almen, San Viator eta Mariaren Lagundia hain zuzen ere. Bestalde, lehen hezkuntzako herri ikastetxeak sortu dira Aretxabaletan eta Oñatin, eta Mankomunitateak, udalek, Hezibidek eta ikastetxeek osaturiko erakundeak kudeatzen ditu. Horrez gain, Aretxabaleta, Aramaio, Elgeta eta Antzuolako ikastolak herri ikastetxeetan sartu dira.

Bestalde, Oñatiko ETEO eta Eskoriatzako Irakasle Eskola unibertsitatean barneratu dira, Mondragon Unibertsitatearen baitan, hain zuzen ere. Hor dago baita ere UNED, eta horrez gain, Hezibideren baitan zeuden ikastetxeek Arizmendi sortu dute, bailara osoan hedatuz.

Hain justu, Mondragon Unibertsitatea 1997an sortu zen: industria eta zerbitzu arloko inguruko enpresekin harreman zuzena duen unibertsitate kooperatiba. Horrek hiru fakultate nagusi ditu: batetik, Goi Eskola Politeknikoa, gainerakoari sorrera eman ziona. Arrasaten dago eta ingenieritzako irakaskuntzetara mekanika, elektronika, informatika eta industria diseinua bideratzen ditu. Bestetik, ETEO, enpresa-zientzietako fakultatea, Oñatin dago, eta enpresen administrazio, zuzendaritza eta gestio informatikoa lantzen ditu. Azkenik, Humanitate eta Hezkuntza-Zientzietako Fakultatea Eskoriatzan, ikastetxe eta enpresendako profesionalak prestatzen dituena.

**IKASLEEN BILAKAERA**

Hezibide fundazioak 25 urtean, 1975-76 ikasturtetik 1999-2000ra, bailarako ikastetxeen bilakaera aztertu du, eta herriz herri estatistikak egin ditu. Erakundea desagertu ondoren, Arizmendi Ikastola sortu eta Hezibideren testigantza hartu zuen, *Deba Goiena: Aurrera dijoan lurraldea* liburua kaleratuz. Lan horretan Hezibidek urte haue-tan jasotako datu guztiak bildu eta bailarak jeneralean izan dituen aldaketen testuinguruan kokatu izan dituzte.

Hain zuzen ere, erreportaje honen baitan ageri diren datu, taula eta azalpenak liburu beretik hartutakoak dira, Debagoieneko hezkuntza eta biztanleriaren inguruko informazio aski zabala eskaintzen du-eta, euskaraz eta gaztelaniaz.



**Azken hogeitabost urteotan ikasleen kopuruak behera egin badu ere, hauek euskaldunagoak dira.** IKER BARANDIARAN

**"Izugarrizko jaitsiera izan du Debagoieneko biztanleriak. 1999an, 1973an zegoen bitanleriaren %38,32 besterik ez da"**

**"Egun, OHOko ikasleen %75ek euskaraz ikasten dihardu, eta %25 B ereduan —elebidunean—. A eredua ia desagertuta dago"**

**"1999an, haur eta lehen hezkuntzako ikasleen %57 ikastoletan zebiltzan, %12 pribatuetan eta %31 publikoetan"**

## Debagoieneko biztanleriaren bilakaera eta aurreikuspena

| Urtea | Biztanleria |
|---|---|
| 1844 | 17.673 |
| 1900 | 23.797 |
| 1930 | 31.042 |
| 1960 | 44.871 |
| 1975 | 66.125 |
| 1981 | 67.136 |
| 1986 | 66.356 |
| 1991 | 65.109 |
| 1996 | 63.527 |
| 1999 | 62.769 |

| Urtea | Biztanleria |
|---|---|
| 2010 | 58.313 |
| 2020 | 55.177 |

**Hasi 1844ko Madozen Hiztegi Historiko-Geografikotik eta 1999ko udal-erroldara arteko datuak ditugu. Ikusten denez, 1844tik 1981era arte, hau da, 137 urtetan, hazkunde demografikao ezaguru du bailara honek. 1981etik aurrera, berriz, behera egin du biztanleriak.**

## Ikasle kopuruaren bilakaera




**Laurogeiko hamarkadatik aurrera biztanleriak behera egin duen moduan, OHOn eta eskolaurrean matrikulatutako ikasleen kopuruak ere behera egin du azken 25 urteotan. OHOn esaterako, 10.384 ziren 1975-76 ikasturtean eta 4.645 bakarrik 1999-2000 ikasturtean.**

## Ikasleen bilakaera eredu linguistikoen arabera







**Biztanleriak eta, ondorioz, ikasleen kopuruak behera egin du Debagoienean azken hogeitabost urteotan. Euskaraz ikasten dutenen kopuruak, ostera, gora egin du nabarmen. Eredu linguistikoen bilakaera aztertzerakoan, argi eta garbi geratzen da A ereduak (gaztelerazkoa) behera egin duela eta D ereduak, ostera (euskarazkoa), gora egin duela. Gaur egun A eredua ez du ia inork aukeratzen ez OHOn ezta eskolaurrean ere. Bestalde, B ereduak ere behera egin du azken urteotan. Hiru ereduon artean, beraz, euskarazkoa nagusitzen da nabarmen.**

## Bilakaera irakaskuntzaren izaeraren arabera (%)




**Azken 25 urteotan ikastoletan matrikulatutakoen kopuruak gora egin du nabarmen. Era berean, ikastetxe pribatuetan matrikulatutakoenak behera egin du. Eskola publikoan matrikulatutakoen kopuruak beherako joera erakutsi zuen laurogeiko hamarkadara arte eta goranzkoa azken hamarkadan.**

# *Bailaran, labur*

### GOIENA

**Urteko batzar nagusia eta aurkezpen ekitaldia egingo ditu Goienak zapatuan**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen lehen batzar nagusia egingo da bihar, zapatua, Euskadiko Kutxak Arrasaten duen egoitza nagusiko aretoan. Iaz, bi batzar egin zituen Goienak: martxoaren 31n eratze batzarra, eta uztailean batzar berezia, azken hori karguak izendatu eta hainbat betebehar egiteko. Bihar, ostera, lehen batzar nagusi arrunta egingo dute, eta horrelakoetan izaten diren gaiak landuko dituzte: iazko txostena eta diru kontuak, aurtengo kudeaketa plana, betebeharrekoak, eta bakoitzak dakarrena. Elkarte sortzaileek, hau da, bailarako euskara elkarteek, lehen aldiz izango dituzte alboan bazkide laguntzaileak eta lan bazkideak. Batzar nagusia amaitu ostean Goiena egitasmoa aurkeztuko dute prentsaren aurrean, eta 12:00etan, ekitaldi berezia egingo dute. Hantxe izango dira Goienako buruak, Debagoieneko alkateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Horiekin batera, hainbat pertsona ezagun ere. /ENEKO AZKARATE

### ENPRESAK

**Bailarako bi enpresa saritu ditu Gipuzkoako Merkataritza Ganberak**

Aantzuolako Elay taldea eta Zubillagako Mekalki Kooperatiba Elkartea saritu zituen joan zen egubakoitzean Gipuzkoako Merkataritza Ganberak. Lehenengoari, urteko enpresa esportatzaile onenaren saria eman zioten, eta bigarrenari, ostera, enpresa txiki eta ertainetako onenari. Era berean, aurten kargua lagatzera doan MCCko presidente Antonio Cancelori ohorezko saria eman zioten. Sari banaketa Azpeitian egin zuten. Santi Zabaletak jaso zuen Elay taldearen saria, eta Andoni Gartziak Mekalkiren izenean. Esan behar dugu, enpresa txiki eta ertainen kategorian bost hautagai zeudela eta saritutakoaz gain bailarako beste hiru enpresa zeudela: Aretxabaletako Diara, Arrasate-Oñatiko Danka eta Arrasateko Gamei. /E.A.

### KORRIKA

**Astelehenean helduko da Debagoienera euskararen aldeko Korrika**

Aastelehen eta martitzenean igaroko da Debagoienetik Korrika 12. Soraluzetik helduko da Bergarara astelehen iluntzean, eta ordutegia betetzen badute, 21:12rako bertan izango da. Bergaratik Antzuolarako bidea hartuko du (21:50) eta handik Urretxu, Zumarraga eta Legazpi zeharkatu ondoren, Oñatira iritsiko da gauerdian (00:33). Oñatitik Elorregirako bidea hartu, eta handik Arrasatera helduko da martitzen goizaldean (01:39). Arrasatetik Arabarantz joko du eta Aretxabaleta (02:22), Eskoriatza (02:41) eta Leintz Gatzaga (03:24) zeharkatu ditu. Debagoieneko hainbat ekitaldi antolatu dituzte asteburuan eta astelehenean Korrikari ongietorria emateko. /E.A.

### ATXILOTUAK

**Arrasaten atxilotutako hiru gazteetatik bi aske utzi zituen epaileak eguenean**

Atzo, eguena, eguerdian, Ismael Moreno epaileak kargu barik aske utzi zituen Mondragoen atxilotutako bi gazteak: Xabier Mondragon arrasatearra eta Igor Zearreta zornotzarra, hain justu. Bi horiekin batera, hirugarren bat ere atxilotu zuen Ertzaintzak: Alberto Marin bilbotarra. Eta hirugarren hori kartzelara bidali du epaileak. Hirurei kale erasoak egitea egotzi zieten, eta herenegun atxilotu zituzten Madrilgo Epaitegi Nazionalaren aginduz. Horrekin batera, lau etxebizitza ere miatu zituen Ertzaintzak: atxilotutako hiru gazteenak eta Mondragoeko beste gazte batena. Izan ere, epailearen autoan agertzen denez, Julen Mendizabal gaztearen bila dihardu poliziak. Arrasateko Udalak atxilotutakoen aldeko mozioa onartu zuen eguaztenean EHren aldeko botuekin. Atxilotuen egoera jakiteko jarraipen zehatza egitea eta Udalak gastuei aurre egitea onartu ziren besteak beste./E.A.

**OÑATI** GAZTELEKUA

# Patxi Hipolito/ Gaztelekuko arduraduna

## *“Herriko talde eta elkarteen beharrak, eskaerak eta proposamenak jaso nahi ditugu”*

AINTZANE IRIZAR

**Gazteleku berria izango denari begira hausnarketan aritu zarete. Zein da zuen helburua?**

Gazteleku berriari buruz orain arte Gazteria Batzordean landutakoa, herriko gazte eta taldeei erakustea da momentu honetan zinegotziek bultzatu nahi duten helburua. Ildo horretatik, eurei aurkezten ari gatzaizkie orain arte dagoen planteamendua, banan-banan, bileren bidez. Horrela, zinegotziek aportatu duten bezainbeste eurek aporta dezaten nahi dugu.

**Proiektua idatzita dago, baina ez dute oraindik onartu udalean. Aldaketarik izan dezake herriko taldeekin dituzuen hartu-eman horien ondorioz?**

Bilerak horretarako dira, herriko elkarteen ustez egin beharreko aldaketei buruz berba egiteko, adostasuna bilatzeko eta proiektuaren baitan proposamen berri horiek sartzeko. Orain arte lortu duguna alderdi politikoen arteko adostasuna da. Adostasun hori honaino heltzeko ezinbestekoa izan bada ere, ez da nahikoa. Adostasun zabalagoa behar dugu herrian, eta horretarako herriko talde eta elkarteen beharrak, eskaerak eta proposamenak jasota egon behar dira proiektuaren baitan.



**Zer jarrera eta iritzi jaso dituzue herriko talde eta elkarteengandik?**

Talde bakoitzari proiektuaren informazio guztia aurkeztearekin batera, proposamen eta galdera batzuk zabaltzen dizkiogu. Ez diegu eskatzen bertan erantzutea, izan ere, denbora behar da talde bakoitzean hori aztertzeko eta erantzuna emateko... Orain arte, jarrera interesa duenarena izaten ari da; euren erantzunak berriz, garrantzi handia du momentu honetan, proiektuaren abiapuntua markatuko du eta.

**Horrenbesteko zeresana eman duen kudeaketaz, ze iritzi dute elkarte horiek?**

Alde batetik, lanean dihardudan ia zazpi urte hauetan, taldeek zein gazte askok autogestioaren aldarrikapen zintzoa egiten didate era batean edo bestean, izaten ditugun hartu eman guztietan. Bestetik, eskaera horri erantzutearren, zinegotziak borondatea adierazten ari dira Gazteria Batzordean, azken hilabete hauetan, bereziki. Gaztelekua helburu horretara zabaltzeko azken hitza eurena da.

**BERGARA** ELKARTASUNERAKO SENIDETZEA

# Gleibat Elfula herriarekin senidetu da Bergara

*Ume sahararrak hartzeko deia egin du udalak*

MONIKA BELASTEGI

**Martxoaren 18an sinatu zuen udalak Saharako Gleibat Elfularekin elkartasunerako senidetzea. Sinatzea Gleibat Elfulan egin zuten. Juanjo Arrieta alkateordea joan zen Bergarako ordezkari gisa.**

Elkartasunerako senidetzearen helburu nagusia da Saharan geldi dagoen autodeterminaziorako erreferenduma bultzatu eta babestea. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeak 1985ean Sahara herriaren autodeterminazio eskubidea onartu arren, Marokok eragozpenengatik, ez dute oraindik erreferendumik egin.

Beste oinarri batzuk ere baditu Bergarak eta Gleibat Elfularen senidetzeak: hala nola, Saharako auzia modu baketsuan konponduko duten ekimenak bultzatzea, eta bi herrien arteko harreman soziokultural, ekonomiko eta turistikoak bultzatzea.

Euskal Herriko hainba[t] herrik sinatua zuten aurreti[k] hitzarmena Saharako hainba[t] herrirekin. Hurbilean, Oñatik, esaterako. Bergararekin batera beste hogei herrik ere sinat[u] zuten hitzarmena martxoaren 18an, Arrasatek, besteak beste.

### LAGUNTZA HUMANITARIOA

Senidetze dokumentuko konpromisoez gain, beste bi ere hartu dit[u] udalak Gleibat Elfularekin. Batetik, udan Bergarako etxeetan neska-mutiko sahararrak hartzeko. Horregatik, udalak dei egiten di[e] herritarrei 8 eta 10 urte bitarteko umeak etxean hartzeko, uztailean eta abuztuan. Interesatuek udaleko Ongizate Sailera dei dezakete. Bestetik, beharrezkoak dituzten botika, bozgoragailu eta mikrofonoak emango dizkio udalak Gleibat Elfulari. Herri hartako ordezkariek Bergaran bertan jasoko dituzte batutako gaiak, uztailean, umeak ekartzera hurbiltzen direnean.



Juanjo Arrieta, Bergarako alkateordea, eta Gleibat Elfulako alkatea.


LEIBAR ERRAKINDEGIAK Mitarte, 1 • Tf. 943 771379 Loramendi, 1 • Tf. 943 791833
ERRASTI Kioskoa Durana, 19 • Tf. 943 799876
Maritxu Mertzeria Araba Ibilbidea, 24 Tf. 943 79 23 53
GEMES Edertze Aretoa Durana, 40 Tf. 943 799918
Loramendi, 1. Tf. 943 79 71 69
Santa Kurtz Janari denda Tf. 943 79 28 19
Martin Erlojeria - Bitxitegia Mitarte, 16 • Tf. 943 79 01 72
Drogeria Mertzeria LEINTZ Errekabarren, 3 • Tf. (dendakoa) 943 79 78 63 (etxekoa) 943 79 06 84
FARMA BIZI Loramendi, 8 Tfnoa-Faxa: 943 771818
IRIARTE Umeen denda eta lentzeria Durana, 8 • Tfnoa: 943 79 10 96
Bitxitegia MIREN & ZURIÑE Bitxien diseinua Bitxien-konponketa
TXILARRA Elikadura berezia Durana, 35 Tf.: 943 79 10 15 Loramendi, 9 Tf.: 943 79 44 28
Bereziki: Harategia Urdaitegia Fruitategia IMANOL Janari denda Gorbea kalea. • Tfnoa: 943 79 05 83
Irudi
ALBOKA Gazte moda Durana, 36 • Tfno: 943 771610
HERRASTI Akeita etxea Cafes Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83
Electronica AITZORROTZ Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610
Zubia Oinetakoak Mitarte, 14 Tfnoa: 943 79 16 00
NERIAN Loradenda Tfno.: 943 79 70 66
Paperdenda IBER Loteria Otalora, 2 Tfnoa: 943 79 79 24





ARETXARTEk bi bikoterentzako bainuetxe batean astebukaerako egonaldia zozketatuko du.
2001eko maiatzaren 11n izango da zozketa
aretxarte MERKATARI ELKARTEA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ZAPE - artegintza. - artesania. Lezama merkatal zentrua, 14 Tel.: 943 77 07 92
IBARRA Estankoa Prentsa Ikasmateriala Bizkaia, 3 • Tf. 943 792377
Confecciones ASENSIO Jantzidenda Mitarte, 12 • Tfno.: 943 79 10 72
Lasai Mirian Monteca Lezama merkatal zentrua Santa Kurtz, 24 • Tf. 943 770434
Frutan eta txarkuterian espezialitatea Angelines Autozerbitzua Mitarte, 16 • Tfno.: 943 79 61 42
JOSU Urdaitegia Gozotegia Kroasantegia Janari prestatuak Mitarte, 1 • Tf. 943 77 03 08
ARETXABALETA Fontanería Iturgintza Durana, 16 • Tfno.: 943 79 17 53
Larrad Peluquería y Salón de belleza •Luzatzeak •Mikropigmentazioak •Depilazio elektrikoa Loramendi, 11 • Tf. 943 799079
GARBITZE Loramendi 6, Behea • Tf. 943 79 53 61
Etxabe harategia Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61
Jauregi okindegia Otalora, 10 Tf. 943 79 57 47
Optika Loramendi, 10 • Tf. 943 79 98 21
Leniz liburudenda Herriko Plaza, 10 Tf. 943 79 75 53
Gertu Jakien elaborazioa eta salmenta Mitarte, 10 • Tf. 943 770612
ALDE ARETXABALETA Murubide IFA Murubide, 4 • Tf. 943 79 91 76
Haurrak Umeendako moda Lezama merkatal zentrua, 15 Tf. 943 77 14 86
MARI KARMEN oinetakoak Konponketak Errekabarren • Tf. 943 79 59 85
Fruteria Errekabarren Frutadenda 943 799643
XUME Teladenda Errekabarren, 14 • Tf. 943 79 11 19
L-10 Loramendi, 10 Tel.: 943 77 01 28 20550 Aretxabaleta

ARRASATE | ARGAZKIGINTZA LEHIAKETA

# Argazkigintza nagusi herrian: lehiaketa eta ikastaroa

UBANE MADERA

Udaleko Gazteria Sailak antolatuta, Gazteen Ekimenak lehiaketaren XII. aldia jokatuko da Mondragoen. Izenak dioen moduan, gazteen ekimenak erakusten dituzten argazkiak aurkeztuko dira lehiaketan, zuri-beltzean edo koloretan, taldeka edo banaka.

**BI KATEGORIA**

Bi taldetan banatuko dira parte hartzaileak: 13-17 urte bitartekoak eta 18-35 urte artekoak. Lehenengo kategorian bi sari daude: 40.000 eta 20.000 pezeta. Bigarren kategorian, berriz, koloretako eta zuri-beltzeko argazkiak desberdindu egingo dira sariak emateko orduan, eta baita bildumak ere. Horrela, zuri-beltzeko bildumarik onenak 75.000 pezeta jasoko du eta argazkirik onenak 50.000 pezeta. Diru kopuru bera onartu da koloretako bildumendako.

Eta sari horietaz gain, emakumezkoaren ikuspuntua hobetoen islatzen duen argazkiak sari berezia jasoko du, Emakume Sailak emandakoa: 50.000 pezeta. Lanak aurkezteko epea urriaren 11n bukatuko da.

**Zertzelada**

**Zuri-beltzeko edo koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara, eta edozeinek parte hartu ahal du**

**ARGAZKI IKASTAROA ZAPATU GOIZETAN**

Horrez gain, argazkilaritza ikastaroa ere antolatu du udalak. Hastapen maila landuko da, eta ASA taldearen egoitzan emango dira eskolak, zapatu goizetan; guztira, 21 ordu. Irakaslea Jon Ruiz de Zarate izango da, eta 12ko lagun taldea onartuko da; hortaz, adi, eta interesatuok lehenbailehen eman izena udaleko Gazteria Sailean, udaletxean.

ESKORIATZA | GANUZA ETXEA

# Ganuza etxeak, erabat berriztatua, bihar izango du inaugurazio eguna

*Urteetan bertan behera utzia, egun Jose Arana Ikastolaren egoitza da*

IÑIGO BIAIN

Eskoriatzaren bihotz-bihotzean kokatuta badago ere, urteetan egon zen Ganuza etxea bertan behera utzita, zeharo abandonatuta. Gaur egun, ordea, biziz bete da berriro, izan ere, Jose Arana-Almen Ikastolako egoitza bihurtu da, goitik behera berritu ondoren, noski. Bertan ikasten dute Eskoriatzako etorkizuna izango diren haur askok, eta egoitza bera ezin hobea bada ere, ez da okerragoa etxearen kokapena, herriaren erdi-erdian baitago.

Hori guztia ospatu beharra zegoen, eta Arizmendi Ikastolaren baitan dagoen Jose Arana ikastolak bihar egingo du egoitza berriaren inaugurazio ofiziala. Ez da ordea, inaugurazioaren inguruan izango den ekitaldi bakarra, aurreko bi eguenetan hitzaldiak izan baitira gurasoentzako. Alde batetik, Virginia Iglesias psikologoa izan zen jatearen ohiturei buruz berba egiten, eta bestetik, atzo, Pello Añorga ipuin kontalaria, seme-alabei ipuinak kontatzeko oinarriak azertuz.


Ganuza etxea, erabat berrituta, zapatuan inauguratuko da. IÑIGO BIAIN

Baina esan bezala, egun handiena bihar izango da, zapatua, inaugurazio ofizialaren eguna baita. Ekitaldia Ganuza Etxeko gaur egungo protagonistek zabalduko dute, haurrek, beraiei zuzenduta baitago arratsaldeko 16:30etan Encarni Genua antzezleak prestatutako "Galtzagorri" txotxongilo saioa. 17:15etan tailerrak hasiko dira, eta hala nahi duenak etxea ikusteko tartea ere izango du. 18:00etan inaugurazio ekitaldi ofiziali hasiko da, haurren ekitaldi batekin, eta ondorengo plaka zabaltzearekin.

ARETXABALETA

## Herriko gaztetxea uzteko astebeteko epea eman du Udalak

AMAGOIA LASAGABASTER

Udalak, aste beteko epean gaztetxea uzteko dekretua jakinarazi zion Aretxabaletako Gazte Asanbladari. Dekretu horretan, udalak garai baten gaztetxeko kideekin adostutako hitzarmena ez dela bete, eta apirilaren 2an gaztetxea itxiko duela azaldu dute.

Hitzarmenean, gaztetxeko ordutegia eta erabilerak finkatu zituzten. Horren aurrean, gazte asanbladak, ordutegiak errespetatu eta kultura ekitaldiak egiten dituztela argudiatu du. Ondorioz, ez daukate gaztetxea uzteko asmorik. Eguaztenean batzarra egin zuten udalak hartutako erabakiaren aurrean zer egin pentsatzeko.

Alkateak bestalde, gaztetxeak gaur egun taberna soil moduan funtzionatzen duela esan du. Horrez gain, ordutegiak ez dituztela errespetatzen eta inguruko bizilagunen kexuak jaso dituztela esan du. Hori ikusirik, udalak hartutako erabakia finkoa da. Hala ere, itxieraren ondoren, arazoak konpontzeko elkarrizketa bidea zabalik dagoela adierazi du alkateak.

ARAMAIO | BAKE EPAILE BERRIA

# Datozen lau urteotarako bake epaile berria aukeratu dute

*Julian Unzueta da bera, aramaioar erretiratua*

UBANE MADERA

Eguaztenean, hileroko batzarra egin zuen udalbatzarrak, eta besteak beste, herriko bake epaile berria aukeratu zuen. Aurkeztu ziren hiru lagunen artean, Julian Unzueta Etxebarria hautatu du udal gobernuak. Erretiratua da bera, "nahiko urte ditut". Eta egia esan, ez du oso gustura hartu izendapena, baina "udalaren nahia hori bada, jakina, onartuko dut bake epaile izatea".

Orain, Aramaioko udal gobernuak egindako izendapena Bilboko Auzitegi Gorenari bidaliko diote, erakunde horrek onespena emateko.

**ORDEZKORIK EZ**

Ordezkoa, berriz, orain artekoa izango da: Francisco Javier Unzueta. Izan ere, bi urte daramatza lanean, eta kargua lau urterako denez, beste bi urte geratzen zaizkio.

Oharra: Ttirrittola elkarteak oraingo astean egin behar zuen hitzaldia apirileko bigarren astean egingo du.


Julian Unzueta izendatu dute bake epaile. UBANE MADERA

ANTZUOLA | JAIEN ANTOLAKETA

# Jai Batzordea datorren martitzenean bilduko da

*Elkarte eta herritar guztiei egin zaie deialdia*

AINTZANE IRIZAR

Antzuolako jaietarako oraindik hiru hilabete baino gehiago gelditzen den arren, laster hasiko da herriko talde bat jaiak antolatzen. Datorren martitzenean, apirilaren 3an, hain zuzen ere, egingo dute Jai Batzordearen lehen batzarra. Udaletxean izango da, arratsaldeko 7etan.

Bilera horretarako deialdia zabaldu die udalak herriko hainbat talde eta elkarteri, urtero moduan: Pausoka gaztetxoen taldea, Gaztetxea, Jubilatuak, txistulariak, dantzariak, udaleko teknikariak eta zinegotziak elkartuko dira batzordean, besteak beste. Dena dela, herritar guztiek dituzte zabalik batzordeko ateak, euren proposamenak agertzeko eta batzordean parte hartzeko. Denen artean, behin-behineko egitaraua prestatzen hasiko dira laster. Martitzenekoa izango da, beraz, lehendabiziko batzarra, eta aurrerantzean hamabostean behin elkartuko dira, ekitaldiak proposatu eta zehaztuz joateko.



# Zabalik



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

## Arrautzak urdaiazpikoarekin

**Arrakastaren erosotasunean lo geratzen denak ez du aurrerapenik egingo eta gainbehera ziurtatuta dauka. Debagoieneko herri komunikabideek eroso eta lasai egoteko motiborik bazutela zirudienean, proiektu berri batek esnatu zituen: Goienak. Azken hilabete luze hauetako ilusioak, zalantzek, eztabaidek eta erabakiek argi eta garbi erakutsi dute gauza berriak ikasten segitu nahi dutenentzat soilik egina dagoela etorkizuna. Aurrerapena asmoak errealitate bihurtzeko daukagun gaitasunean datza, eta horrek aldaketak eskatzen ditu, ohiko paradigmak puskatuz, baina beti profesionaltasunaren eta zerbitzu hobe baten mesedetan.**

**Oraingo asteburuan Goiena egitasmoaren aurkezpen ofiziala izango da. Gosez dagoenak arrautza pare bat eta urdaiazpikoa duen platerari egiten dion ongietorriaren parekoa izango da zenbaitzuek Goienari egingo dioguna. Ez da edonolako jakia, ahalegin handiz egindakoa baizik, eta kalitatezko osagaiekin, lagun askoren inplikazio eta konpromisoarekin. Oiloak eta txerriak daude Goienan: lehenak bere arrautzatxoa errutzen, inplikazio maila ezberdinarekin; eta bigarrenak bere bizia bertan utziz, edo kasik, egitasmoarekin guztiz lotuta azalduz. Bederatzi elkartek 3.000 bazkide eta sei udalen babesarekin egokitu dute sukaldea, 40 sukaldarik afaria prestatu eta bailarako mahaira txukun-txukun eraman dute. Ohiko jankideak prest daude esertzeko, beste asko berrikuntzaren usainak erakarrita hurbiltzen ari dira, eta urrutirago dauden horiek oraindik duda-mudatan. Guztira, 60.000 irakurletik gora, eta gero eta ikusle eta entzule gehiago.**

**Ez da erraza eskualdeko aldizkari bat, sei herri aldizkari, eskualde telebista bat eta herri irrati bat sortzea eta, bereziki, kudeatzea. Baina, aurrera egin behar da, arrautzak hoztu baino lehen jatea komeni da eta.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

Faxa

## Helburuekin, aurrera goiaz, Gaztetxia badago

Eskutitz honen bidez joan zen hilean Elgetako gaztetxeari buruz, Elgetako *Goibekokale* aldizkarian, bertako kide batek idatzi zuen iritzi pertsonala errespetatuz nire iritzia azaldu nahiko nuke. Lerro hauekin gaztetxeko beste lagun batzuk ere ados daudela azpimarratuta.

Gaztetxeari buruzko nire ustea argitu baino lehenago, eskutitzean azaltzen diren adibide zehatz batzuei buruz nire desadostasuna edo haserrea adierazi nahiko nuke. Alde batetik bi adibide horiek azaltzea desegokia iruditzen zaidalako, beharrik ez baitzegoen, eta bestalde, adibide horietan sartzen garen batzuk gaztetxean dinamikoki parte hartzen baitugu, horrek argi uzten du nahi izanez gero lokal horiek ez direla gaztetxerako oztopo.

Lerro hauekin lortu nahi dudana, herritarrok gutun horretan azaltzen zen iritzia gaztetxeko guztion iritzia ez dela argitzea da, gaztetxean ilusio eta indarra duen jendea ere badagoelako. Guztiok ilusio, gustu, afizio... berdinak ez eduki arren gaztetxearen helburuek batzen gaituztenez, elkarrekin lan, ikasi eta ondo pasatzen dugu.

Ez dut nire izenarekin sinatu, gaztetxean denon lana beharrezkoa eta denon lan hori anonimoa izan behar delako. Inongo bereizketarik gabe eta denon lana baloratuz, nahiz eta batzuk beste batzuk baino lan gehiago egin.

SUA / NAN: 44173302-P
Elgeta

## Pentsiodunen eta Aurre Erretiratuen manifestazioa

Beste behin, Pentsiodunen eta Aurre Erretiratuen Euskal Federazioaren barruan gauden elkarteek manifestazioa egitea erabaki dugu. Datorren apirilaren 3an izango da, Estatuko bestelako erkidegoetan egingo diren manifestazioekin bat eginez.

Erabaki hori hartzeko arrazoia da oraindik ez dugula atzeman gure eskaeren aldeko lege edo hitzarmenik, eta ez dugula jaso horren gaineko albiste argirik.

Gure federazioko ordezkariek sindikatuekin, politikariekin, eta abarrekin izandako batzarretan sumatu izan da gure eskaerak begi onez ikusten dituztela eta euren laguntza eta dedikazioa eskaini izan digute. Baina, denborak aurrera egin du, eta badirudi agindutakoa ahaztu dutela eta ez direla larregi saiatu.

Noizean behin, komunikabideen bitartez esan digute negoziatzen dihardutela guretako hain itxaropentsua den Toledoko Hitzarmenen Mahaian, eta abar.

Orain arte jasan dugunaren ondoren eta oraindik ere jasaten diharduguna ikusita, ez gaude prest hitz goxo eta promesak entzuteko, ekintzak nahi ditugu.

Zer edo zer botatzearren egiten dituzten adierazpenek ez dituzte arazoak konpontzen, eta badirudi lortu gura duten gauza bakarra gu isilaraztea dela.

Batzuetan, gogorik eta nagusitzen da gure artean. Baina, ez dugu itxaropena galtzen. Adi eta esna egon behar gara, inork ez dezan esan lo eta geldi egon garela. Mahai horretan egingo den banaketan parte hartu nahi dugu. Horretarako eskubidea dugula uste dugu, eta pentsatzen dugu ez dela zuzena gure pentsioa urtero %7/8 murriztea, 65 urte bete arte; jakinda 35/40 urte edo gehiago kotizatzen ibili garela eta zenbaitetan gure lanpostuetatik, gure borondatearen kontra, bota gaituztela. Murrizketa horren ondorioz, 60 urterekin erretiratzen denari pentsioen oinarri arautzailearen %40 kentzen diote.

Eta egoera hori ez bada bidezkoa, are gutxiago da alargunei egiten diotena: gizona hiltzen zaienean, hark kobratzen zuenaren %45 kobratzen dute. %55 kentzen diete. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak emandako datuen arabera, pentsio hori askotan miseria hutsa izaten da.

Horregatik guztiagatik, eta gure egoera ikusita, desadostasuna agertuko diegu politikari eta bestelakoei. Gure eskaerak lortu arte ez dugula gure borrokan etsiko jakin dezatela.

Apirilaren 3an, guztiok Bilbora.

PENTSIODUNEN ETA AURRE ERRETIRATUEN EUSKAL FEDERAZIOA
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIAB



## *Eztabaida*

Realak badu presidente berria: Jose Luis Astiazaran gaztea. Gipuzkoako futbol talde nagusiaren lemazainari lana pilatu zaio kargua hartu orduko: lehen taldea zulotik ateratzeko eginahalak egin beharko ditu lehenbizi. Gero, datorren urteari begira, taldea goitik behera aldatu beharko du. Zubieta goi mailako jokalarien mintegi bihurtzeko egitasmoa abiarazi beharko du geroago; Anoetara zale gehiago erakartzeko estadioa birmoldatu... Baina, Realzaleen gustukoa da presidente berria.

# Zure gustukoa da Realeko lehendakari berria?

## *Astiazaran presidente ona izan daiteke*



BITTOR ARRIARAN
*Bonba* taldekoa

Urangak denboraldi bukaerara arte jarraitu beharko zukeen, eta ondoren, segitu nahi ez bazuen, hauteskundeak deitu. Era berean, presidente ona izan dela deritzot, kirol arloan eta baita zale taldeekin zeukan harremanean hobetzeko moduko gauzak zeuden arren; baina ekonomia alorrean emaitzak oso onak izan dira, eta ez dugu ahaztu behar bazkideen kopuruari eta probintzian taldeak izandako hedapenari dagokienez, klub indartsuagoa egin duela. Autobusak jartzea bezalako ekimenen bidez, bazkideen erdiak probintziakoak izatea lortu du, eta Realak hiriburuko taldea izateari utzi dio. Orain Reala askoz gipuzkoarragoa da, eta hori, Urangari zor diogu.

Astiazaran presidente ona izan daiteke, lasaitasunez jokatzen jakinez gero, eta zortea lagun badauka behintzat. Zale taldeekin harreman estuagoa izan dezala espero dezagun, eta herri honen kirol sentsibilitatearekin zuzena izan dadila.

Dena dela, oraintxe gauza garrantzitsu bakarra, taldeak lehen mailan jarraitzea da, eta horretan eman behar dute eman beharreko guztia bai Astiazaranek, bai zaleek, baita, noski, taldeak berak. Datorren urtean Reala lehen mailan egongo da, zalantza barik.

Presidente berriak gure babesa izango du, eta espero dezagun argi edukiko duela Realaren atzean jende asko dagoela, esaterako, onarpena eta laguntza behar duten zale taldeak. Hala izan dadila espero dezagun, eta guztia ondo joan dadila; egitasmo ona dauka, eta zortzi urteko esperientzia. Egunerokoan bere aurrekoaren apaltasunez jokatzen badu, presidente ona izatea lortuko duela deritzot. Zorte on.

## *Bat bera ere ez da nire gustukoa*



JUAN LUIS ETXANIZ
Realeko bazkidea

Presidentea aukeratzeko prozesua onuragarria izan da Realarentzat, elkartearen etorkizunaren inguruan eztabaidatzeko aukera izan dugu eta. Baina, hauteskundeak behingoz ahaztu eta lehen taldeari laguntza osoa emateko ordua heldu da.

Presidente kargurako aurkeztu ziren hiru hautagaietatik, bat bera ere ez zen nire gustukoa. Beharbada, Astiazaran zen hiruretatik onena, egitarau landuena berea zelako. Norbaitek esan dezake Astiazaran zela hautagai "ofiziala", Urangaren zuzendaritzan jardundakoa delako, edo haren ildo beretik segitzen duelako. Eta beste biak? Kea saltzea erraza da; aldiz, zailagoa proposamen zehatzak edo gauzatu daitezkeenak egitea.

Gallok bi erru izan ditu: batetik, Azkargorta Toschacken gainetik ipintzea, jakinda galestarrak ez lukeela hori sekula onartuko. Bestetik, hautagai zalapartatsu bezala agertu da, Urangaren kontra eginez. Gibelaldek, ostera, hauteskunde eguna baino bi aste lehenago aurkeztu du bere burua. Beranduegi...

Urangak ondo egin du kargua lagatzen, bere kontrako presioa jasangaitza zelako. Baina, itxurak ez zaizkit gehiegi gustatu. Taldearen etorkizuna kolokan dagoenean, lau hilabete geroago kargua lagako duela aurreratzea ez zait ondo iruditzen. Hala ere, uste dut zale asko ez direla ondo portatu berarekin. Ezin dezakegu ahaztu gauza asko egin dituela ondo: fitxaketekin ateratako dirua, orain dela hiru denboraldi ligan lortutako hirugarren postua edo elkartea enpresa bihurtzeko egindako lana.

## Arkonada eta Azkargorta

Uranga, Astiazaran, Gibelalde eta Gallo. Bat bera ere ez dut gustuko. Urangak gauza onak egin ditu, baina txarto egindakoak nabarmenduko nituzke: Alkiza saldu, Etxeberria "lapurtzen" utzi, erdipurdizko fitxaketa piloa egin... Bestalde, Astiazaranek kargua hartu berri du, eta ikusiko dugu zelan egiten dituen gauzak, baina ezin dezakegu ahaztu Urangaren zuzendaritza taldean izan dela orain arte. Hortaz, Urangari buruz esandakoak Astiazaranentzat ere balio du.

Gibelalde, berriz, berandu etorri da lehiara eta Toschackengan jarri zuen Realaren kirol etorkizunaren ardura nagusia (Astiazaranek ere bai), eta ni ez nator bat gipuzkoar gehienek galestarrarengan duten konfiantza itsu horrekin (nork agintzen zuen Realean Alkiza saldu zenean?). Gallori, azkenik, gauza bat aitortu behar zaio: beragatik izan du hain oihartzun handia Realeko presidente hautaketa prozesuak eta, neurri baten, beragatik izan da hain parte hartze handia bozketetan. Baina, bere programa "fantasma" samarra iruditu zait. Gauza bat gustatu zait bakarrik: Azkargorta aukeratu izana Realeko kirol arduradun izateko. Galestarra baino mila bider gehiago nahiago dut azkoitiarra. Niretako bera zen aukerarik onena. Presidente kargurako, ostera, Luis Arkonada.

A. PEREZ
Arrasate

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## *Zer iritzi duzu 'Gran Hermano' saioaren gainean?*

## *Gora eta Behera*

**KORRIKA 12**

Korrika badator. Beste urte bat eta beste ekitaldi bat Korrikarekin euskal errepideetan. Euskaldunok euskararekiko dugun maitasunaren erraìnu den ekimenak, Baionan AEK-ko egotetxe bat zabaltzeaz gain, Nafarroako eta Iparraldeko euskaltegi eta gau-eskolak bultzatzeko dirua lortzea izango du helburu. Has dadila dardarka Sanz.

**EZIN GOITB IKUSI**

Oñatin, Bergaran eta Elgetan bailarako berriak, kirol ekitaldiak (esaterako Elgetako 4 t' erdiko txapelketa, eztabaida saioak...) ez ikustea ez dut oso ondo ulertzen. GOITB ez ikusteko oztopoak jartzen dabilenari, akuluarekin eragingo nioke. Pena da Elgetan kamerak aurrera eta atzera ibili arren, guk gure herriko berri ez jakitea.



JUAN LUIS UBERA
Oskarbi elkarteko pilota arduraduna

## *Koplak*

### *Udaberria*

Aurrerapenak direla eta
kutsatu dugu zerua,
nun kristo gorde ote zaizkigu
aurten hotza eta negua.

Denbora ere denborarekin
bihurtu dugu eroa,
otsail erdian egiten baitu
hego haizea eta beroa.

Nahiz eta izan egoera hau
benetan nahiko larria,
ixil-ixilik loratuz dator
berriro udaberria.

Basoak eta zelaiak ere
jantziaz doaz kolorez,
txoriak berriz zuhaitz gainetan
kantari doinu alaiez.

Bihotzak ere jartzen zaizkigu
sasoi honetan poztuta,
maitasun garai bihur dezagun
pena guztiak ahaztuta.

Begiradaren goxotasuna
ezpainetako irria,
maitasunetik erneko baita
beti bizitza berria.

SEBASTIAN ARANTZABAL

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo, Mireia Larrañaga, Natali Martinez
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak herrialdeko enpresa onenak saritu zituen joan den egubakoitzean. Saritutakoen artean, Debagoieneko bi enpresa: Antzuolako Elay eta Oñatiko Mekalki. Azken horretako zuzendari-gerente Andoni Gartziarekin (Oñati, 1962) elkartu gara.

ENEKO AZKARATE



ENEKO AZKARATE

# *Andoni Gartzia*

MEKALKI KOOPERATIBA ELKARTEKO ZUZENDARI-GERENTEA

## "Gauzak ez dira berez ondo ateratzen, baizik eta ahalegin inteligentearen ondorioz"

MEKALKI ADIMENTSUA

**"Enpresako langile guztien sormena erabiltzen saiatzen gara, horrek ekarriko digu-eta berritasuna"**

GARAIA EGITASMOA

**"Datorren astean Garaia egitasmora noa. Proiektu hau oso garrantzitsua izango da bailara osoarentzat"**

**Enpresa esportatzaile onenaren saria jaso du Elay-k. Zuek, ostera, enpresa txiki eta ertain onenarena. Bailarako enpresek lan ona egiten duzue, ala kasualitatea izan da?**

Gauzak ez dira kasualitatez ondo ateratzen, baizik eta ahalegin inteligentearen ondorioz. Bailaran unibertsitatea badaukagu eta baita ondo hezitako gazteria ere, sekula baino hobeto prestatutakoa, gainera. Bestalde, lehen ez zegoen gaur egun dagoen aukera praktikak egiteko. Ondo hezitako gazteriak lanean esperientzia hartu duen neurrian, eta hazkunde ekonomikoa izan dugun neurrian, bailarako enpresak gauzak ondo egiten hasi dira, eta hori aitortu diete hemengo enpresei joan den astean banatu ziren sarien bitartez. Hortaz, ez da kasualitatea Debagoieneko bi enpresak saria jaso izana, eta ezta ere enpresa txiki eta ertainen kategorian, bost hautagairen artean, lau izatea bailarakoak.

**Zergatik eman dizuete sari hori? Zer egin du Mekalkik saria jasotzeko?**

1993an ekin genion, ilusio handiarekin, eta hiruzpalau urte eman genituen enpresa asko bezala, hau da, fabrika-pentsamoldearekin, produktuari begira edo indar guztiak produkzioan jarriz lan egiten. Orain dela hiru bat urte, ostera, konturatu ginen gure enpresaren hazkundea bezeroaren hazkundearen parean zihoala, alegia, beti bezeroaren atzetik genbiltzala. Eta horrenbestez, lan egiteko modua aldatu behar genuela konturatu ginen. Gure eredu edo kudeaketa modu propioa landu beharko genukeela pentsatu genuen. Hortik abiatuta hasi ginen Mekalki estiloa lantzen. Bezeroaren atzetik joatea ona da. Ez, aldiz, bezeroaren aginduetara egotea. Hortaz, gure produktua bezeroari begira jarri genuen, baina gure erara eta gure ereduarekin. Ondo hausnartu ondoren, erabaki genuen Mekalki adimentsua edo Mekalki estiloa ezarri behar genuela, eta azken hiru urteotan hori garatzen saiatu gara. Hortaz, enpresa txikia izanik, hau da, produktu propiorik ez daukan eta azpikontratazioaren alorrean murgiltzen den enpresa izanik, estilo propioa lantzen duela ikusi dutenean, konturatu dira kalitate ziurtagiriaren eta kudeaketa modu berrien kontuak ez direla lantegi handiendako bakarrik. Gure enpresa beste enpresa txiki edo ertain batzuendako eredu izan daitekeelako saritu dutela uste dut.

**Zer da Mekalki? Eta zer egiten eta saltzen du Mekalkik?**

Bezeroari begira lan egiten duten pertsonek osatutako antolaketa era bat da Mekalki. Gure etorkizuna egunero lantzen dihardugu. Hortaz, hiru elementu nagusi ditugu: antolakuntza, pertsonak eta bezeroak. Orain dela bospasei urte galdera hau egingo bazenidake, Mekalki mekanizatuak egiten dituen enpresa bat dela

sa-zerbitzua garela erantzungo dizut. Guk ez dugu produkturik egiten, nahiz eta zerbitzu bat eman eta kalitatean, prezioan eta zerbitzuan lehiatu behar izan; epeak betetzea ere oso garrantzitsua da. Kalitatean eta prezioan ona izan behar duzula ziurtzat eman behar da, bestela ez zara merkatuan egongo. Baina lehiatzeko, zerbitzu eta epe egokiak eskaini behar dituzu.

Makina-erremintaren alorrean murgiltzen gara, eta mekanikan mantentze lanak ere ematen ditugu. Ez dugu produkturik saltzen, mekanizatuetan zerbi-

**Orain dela zortzi urte sortu zenuten enpresa. Zenbat hasi zineten eta zenbat zarete gaur egun?**

Herriko hiru lagunen artean sortu genuen enpresa, eta lehenengo urteetan larri ibili ginen. Hiru milioi eta erdi jarri genuen bakoitzak, eta guztia inbertitu genuen. Handik hilabete batzuetara, 12 milioi pezetako tornu japoniar bat erostea erabaki genuen. Bankuetara diru eske jo eta gurasoek eta neska-lagunek abalatu behar izan zuten kreditua. Gurea aukera-negozioa izan zen. 1993an krisialditik irteten zebiltzan hainbat eta hainbat

enpresa, eta ekonomiako adituek aholkatzen zuten indar guztiak jarduera nuklearretan jartzea, hau da, diseinuan, ikerketan eta garapenean... Tailer mekanikoak-eta, berriz, gainbeheran zeuden, batez ere, zenbaki-kontrola sartu zenetik. Egora zein zen ikusita sortu genuen Mekalki, eta beti egin dugu lan-eskaera merkatuari begira.

**Noraino iristeko asmoa duzue?**

Gaur egun, 43 langile gabiltza, eta gure asmoa da 50 langile izatera iristea. 2003an amaitzen dugu Plan Estrategikoa, eta helburua da 48-50 langilerekin 500 milioi pezeta, hau da, 10 milioi pertsonako, fakturatzea. Bestalde, FQM kalitate sisteman sartuta gaude orain dela hiru urtetik hona. Kalitatea bermatzeko Europako eredua da FQM; horretarako metodologia berezia aplikatu behar da. Urrezko eta zilarrezko Q kalitatezko bermeak eredu hori aplikatuz lortzen dira. Gure helburua da zilarrezko Q lortzea. Oso garrantzitsua da enpresondako horrelako plangintzak abiaraztea, azken baten, eredu horien bitartez jakingo dugu gauzak ondo egiten ditugun edo ez.

**Zer da Mekalki adimentsua deitzen diozuen hori?**

Gauzak ikusteko era bat. Helburua da guk geuk, enpresa eta langile bezala, egunero etorkizuna lantzea. Guk badakigu bi gehi bi, seguruenik, lau baino gehiago izango direla; horregatik, pertsona, taldea eta antolaketa, gure enpresako hiru elementuak, batera joan behar dira. Pertsona guztiek dute ikuspuntua eta guk ere, enpresa bezala, geurea eduki gura dugu. Norbaitek galdetzen badigu "Mekalki non egongo da hemendik bost urtera?", galdera horri erantzuten jakin behar dugu, jakin beharko dugulako etorkizunean zer egin nahi dugun. Bestela, merkatuaren aginduetara egongo gara. Hortaz, laburtzeko, Mekalki adimentsuak zera esan nahi du: enpresako langile guztien sormena erabili behar dugula lantegian. Horrek ekarriko du berritasuna. Hortaz, langileen sormena enpresarako erabiltzen jakin behar dugu. Jeneralean, ez da asko erabiltzen, eguneroko lanak ez digulako astirik lagatzen. Berritasunik ez badago, zertarako balio du sormenak?

**Non dago zuen lehiakortasuna?**

Hemen bertan, gure inguruan. Gipuzkoan mekanizatuen tailer txiki asko dago. Horregatik, berezitasunaren bila joan gara azken urteotan, hau da, besteek eskaintzen ez dutena eskaintzera. Orain, makina handiekin gabiltza, merkatu hori ez dagoelako oso landua. Jeneralean, makinak ez ditugu guk egiten, guk ideiak ematen ditugu.

**Eta saldu, non saltzen duzue?**

Gure produkzioaren hiru laurdenak, 100 kilometroren bueltan. Baina, gure bezeroek mundu osoan saltzen dute.

**Zergatik aukeratu zenuten kooperatibaren formula?**

Hasieratik argi geneukan gurea ez zela enpresa arrunta izango, eta kooperatiba izango zela. Gure ustez, langilea harro egon behar da enpresako kide izateagatik. Horrela pentsatu genuen hasieratik, eta horixe izan da gure enpresaren arrakastaren gakoa. Langileak bere sentitu behar du enpresa, eta beronen etorkizunaren jabe izan behar da.

**Mekalkiko sortzaileetako bat zara. Datorren astean, hala ere, Garaia egitasmora zoaz. Zertara?**

Garaia egitasmoa abiaraziko dut. Zuzendari-gerentea izango naiz. Unibertsitatearen hausnarketatik ateratako egitasmoa da, eta enpresek, ikerketa edo teknologia zentroek eta unibertsitateak, elkarrekin lan egingo dute. Hortaz, datozen 10 urteei begira, oso garrantzitsua izango da bailara osorako, oso inbertsio handiak egingo dira eta.

*Podiuma*

# Jon Aperribai | ARRASATEKO TRIATLOI TALDEKOA |

**Joan zen zapatuan Oñatin jokatutako duatloian laugarren postuan sailkatu zen Jon Aperribai arrasatearra (26 urte). Aurten hirugarren denboraldia beteko du Arrasate Triatloi Taldean. Aurreko denboraldian duatloiko euskal zirkuituan laugarrena izan zen, eta triatloikoan, berriz, hirugarrena. Domekan, apirilak 1, Euskadiko taldearekin, Autonomia Erkidegoen arteko Espainiako duatloi txapelketan izango da, Madrilen.**



Oñatiko duatloian 4. postuan sailkatu zen Jon Aperribai. XABI URZELAI

**Pozik Oñatin lortutako emaitzarekin?**

Bai, nahiz eta hasierako korrikako proban [7 kilometro] denbora dezente galdu, bizikletan [40 kilometro] ondo ibili nintzen eta aurreko taldearekin bat egitea lortu nuen. Lasterketa bost lagunen artean erabaki zen, korrikako azken proban [3,5 kilometro], eta laugarren sailkatzea lortu nuen. Aurreko astean entrenamendu onik egiterik izan ez nuela kontuan hartuz, uste baino emaitza hobea lortu nuen.

Dena den, euskal zirkuituko bigarren proba zen Oñatikoa eta nahiz eta Basaurin postu txarragoa lortu (bosgarrena), hantxe hobeto ibili nintzen. Sentsazio hobeak izan nituen Basauriko Euskadiko Txapelketan.

**Zein helburu daukazu aurtengo denboraldirako?**

Hemendik maiatzera bitartean duatloiko euskal zirkuituko probetan hartuko dut parte, eta ekainaren 9an, Arrasaten jokatuko den probarekin, triatloi zirkuituari ekingo diogu. Helburu zehatzik ez daukat, ahalik eta ondoen ibiltzea da asmo bakarra. Eta joan zen urteko emaitzak hobetzen baditut, askoz hobeto. Hemendik aurrera ia astero probaren bat izango dugu, baina ez dakit euskal zirkuituko proba guztietan parte hartuko dudan, ez dakit guztietara joatea komeni zaidan. Duatloi zirkuituan 12 proba dira denera, baina zazpi proban parte hartzea nahiko izaten da sailkapen orokorrerako puntuatzeko.

**“Nire ustez, duatloia triatloia baino gogorragoa da, korrikan birritan egitea oso exijentea delako”**

**“Triatloian nahiko irregularra naiz, igeriketan nahiko eskas nabilelako. Hiru kirolen artean oreka bat lortzea da nire helburua”**

**Duatloietan ala triatloietan aritzen zara gustorago?**

Nire ustez, duatloia triatloia baino gogorragoa da, korrikan birritan egitea oso exijentea delako. Triatloian, aldiz, hiru kirol ezberdin tartekatzen dira, eta gorputzak ez du horrenbeste sufritzen. Duatloian fisikoki eta psikikoki ere gehiago sufritzen da.

**Triatloian, igeriketa, bizikleta ala korrika?**

Ni txirrindularitzatik nator, afizionatuetan korritu dudalako aurretik. Beraz, ondoen bizikletan ibiltzen naiz. Korrikan defenditzen naiz eta igeriketan, ostera, nahiko eskas nabil. Nahiko irregularra naiz triatloian eta aurtengo helburuetako bat hiru kirolen artean oreka bat lortzea izango da.

**Zenbat orduz entrenatzen duzu astero? Entrenatzailerik badaukazu?**

Juani Errasti da nire entrenatzailea eta berak markatzen dizkit entrenamenduak. Egunero, batez beste, bi orduz entrenatzen dut eta hiru kirolak tartekatzen ditut. Gogorra? Norberaren exijentzia maila eta gorputzaldiaren arabera. Azken batean bakoitzak helburu ezberdinak ditu; triatloi batera disfrutatzera ere joan zaitezke.

**Urteko zein sasoitan ibiltzen zara ondoen?**

Udaberritik aurrera entrenatzeko aukera gehiago izaten dut eta helburua, ekaina alderako sasoi onenean egotea litzateke, triatloi denboraldiaren hasierarako.

**Aurretik, domekan, Autonomien arteko Espainiako duatloi txapelketan izango zaitugu.**

Bai, Euskadiko taldearekin parte hartzeko hautatu naute eta ikusi behar. Oñatikoa baino proba luzexoagoa izango da: 10 kilometro korrika, 40 bizikletan eta beste 5 korrika.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Mikel Lizarralde
## Txirrindularia



Lizarraldek urtebete eman zuen profesionaletan, Orbea taldean.

**Afizionatuetan Gipuzkoako txapelduna izan zen**

**1984an profesionaletan korritu zuen**

**Bi bizikleta denda ditu, Oñatin eta Arrasaten**

Bere lehen bizikleta anaiak oparitu zion; “gogoan dut *Alzania* markako bizikleta zela eta ni baino pisu handiagoa zuela” dio Mikelek umorez. Hamahiru bat urte izango zituen eta handik gutxira Aloña Mendi taldearekin hasi zen lehiatzen. Gaztetan maila ona erakutsi zuen eta afizionatuetan Aretxabaletako Uriarte taldean hasi zen. Ondoren, Kas, Baque-Zeus eta Orbea taldeekin korritu zuen. Afizionatuetan, besteak beste, Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen eta, Baque-Zeus taldearekin, erlojuz kontrako taldekako Espainiako txapelketan bigarrena izan zen. Julian Gorospe, Sabino Angoitia edo Alfonso Gutierrez ziren bere taldekideak. Era berean, Kas taldearekin Euskadiko txapeldunordea izan zen. Soldaduskatik bueltan, Orbea taldean hasi zen, afizionatuetan, Peio Ruiz-Cabestany eta Jokin Mujika taldean zirela. Bejarreko Itzulia irabazi eta Tarragonakoan bigarren izan zen.

Hurrengo urtean, 1984an, profesionaletan debutatu zuen Orbearekin. Hala ere, ez zuen zorte handirik izan, “Euskadiko Itzulian jausi egin nintzen eta Aragoikoan ere bai, justu Zaragozako etapa irabaztera nindoala. Esperientzia gazi-gozoa izan zen profesionaletan jardutea”. Hurrengo urtean Hueso taldearen eskaintza jaso zuen, baina ordurako bizikleta uztea erabakita zeukan; “ez naiz damutzen hartutako erabakiaz, nahiko erreta bukatu nuelako”. Erretiratzerakoan bizikleta denda zabaldu zuen Oñatin, eta gaur egun Arrasaten beste bat dauka. Noizean behin bizikletan ibiltzen da oraindik, eta urtero joaten da Tourrera; “aurten ere Armstrong eta Ullrich ibiliko dira hor aurrean. Odriozolak, bestalde, bere aukerak izan ditzake”. /E.M.

*“Esperientzia gazi-gozoa izan zen profesionaletan jardutea. Egia esateko, ez nuen zorte handirik izan eta nahiko erreta bukatu nuen”*



Mikel Lizarralde • Oñati • 1960



## Nire Pronostikoa

ALEX FAMILAR / Bergarako saskibaloi taldeko entrenatzailea

Bada ordua Realak etxetik kanpo partidu bat irabazteko eta Mallorca sorpresa emateko toki aproposa izan daiteke. Ez dut uste Mallorca saikapeneko aurrealdeko taldeen parean dagoenik. Euskal derbian, berdinketa izango dela uste dut, Athletic ez dabilelako batere ondo azkenaldian eta Osasunak hobera egin duelako. Bestalde, Alavesek Oviedon galduko duela uste dut, UEFAn egiten ari den lan bikainak ligan kontrako eragina izan dezakeelako. Bergarak, berriz, partidu zaila izango du. Ez dut uste Realaren aurka inolako aukerarik izango duenik.

**Oraingo astebukaerako partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Mallorca | 1 | Reala | 2 |
| B/ | Athletic | 1 | Osasuna | 1 |
| C/ | Oviedo | 1 | Alaves | 0 |
| D/ | Reala | 4 | Bergara | 1 |

**Zure etorkizunerako aukera ezin hobea,
berritzailea eta gizartearen errekonozimendua jaso duena:**

Euskadi

# GESTIO ESKOLA




**AURKEZPEN SAIO IREKIA**
Apirilaren 5ean, arratsaldeko 7retan
GESTIO ESKOLAKO ARETO NAGUSIAN

**IMH-San Roke, 1**
**20870 ELGOIBAR**
**Tel.: 943 744132**

***Zatoz! ez zara damutuko***






## Agirrebeña

Ibarra kalea / BERGARA
943 76 20 38

- Menua eta Karta
- Bataio eta Jaunartzeak
- Plater konbinatuak

**Berezitasunak**
- Arrain entsalada epela
- Entrekota piper gorri eta berdeen saltsan
- Legatza perretxiko eta berakatzez beteta



## Aldape

Iturriotz, 41 / ARRASATE
943 79 70 41

- Eguneko menua
- Karta

**Berezitasunak**
- Porruak arrautza-irinetan pasatuta.
- Orein solomoa aran saltsan.
- Arraina plantxan.
- **Igandeetan itxita**



## Batzokia

San Pedro, 4 / BERGARA
943 76 49 33

- Menua
- Karta
- Bataio eta Jaunartzeak
- Kintadak

**Berezitasunak**
- Zapoa
- Kokotea



## Eguzkitza

Aranerreka, 30 / BERGARA
943 76 14 25

- Plater konbinatuak
- Kazuelatxoak
- Karta, aurrez eskatuta
- Menua 900 pta., gauetan ere bai

**Berezitasunak**
- Entsalada epela
- Legatz betea
- Bakailaoa



## Kataide

Kataide Poligonoa / ARRASATE
943 79 60 10

- Menua
- Gosariak
- Pintxoak

**Berezitasunak**
- Plater konbinatuak



## Torrekua

Ibargarai, 37 / BERGARA
943 76 50 99

- Eguneko menua
- Karta

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Txuringo

Osintxu / BERGARA
943 76 48 63

- Menua eta Karta
- Ezkontzak
- Jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Txerrikumea, bildotsa, baserriko oilaskoa labean erreta



## Zuhaizti

Espoloia, 6 / BERGARA
943 76 59 22

- Pizzak
- Plater konbinatuak

**Berezitasunak**
- Etxeko postreak

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko martxoaren 30a

Kultura eta Aisialdia

Martxoaren 30etik apirilaren 5era




Azken hamarkadetan, gazteriak izugarrizko griña erakutsi du musika taldeak sortzeko, eta jakina, gaur egun, beharrezko instrumentuak eskuratzeko erraztasun handiagoak dauzka. Ohikoa da bailarako edozein garaje edo sototan musika talde berriak aurkitzea, eta badago aski ezagun egin den talde bat baino gehiago ere. Talde ezagun eta ezezagunek, entsegu etengabeen ondoren, euren kantuak kaleratzeko griña izaten dute, eta horretarako, grabazio-estudio baten sartzea erabakitzen dute. Hala sortu zen Shot! estudioa, 1994an. Arrasateko Araba etorbidean dago, eta Debagoienean egon den eta dagoen grabazio estudio bakarra da; urteen poderioz izugarri modernizatu da. Iñaki Bengoak eta Pello Aldabek zuzendutako txoko horretara urte hauetan guztietan bailarako, Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko talde ugari gerturatu dira maketak edo diskoak prestatzeko. /14

# Shot!

## Bailarako Grabazio Estudioa

GOIO ARANA

Kronika | **Dusminguet** musika taldea

# Lehenengo akordetik parranda ederra

CUMBIA BAT, REGGAEA, PASODOBLEA, SALTSA... MESTIZAJE LATINDARRA

**Taldea:** Dusminguet. **Jatorria:** Kataluniako La Garriga herria. **Kontzertuaren eguna:** 00/03/24. **Lekua:** Elgetako gaztetxea. **Sarrera:** 600 Pta. **Bildutakoak:** 250 pertsona inguru. Gaztetxean bero, musika beroak eskatzen duen moduan.



Dusminguet talde katalandarrak dantzan jarri zituen Elgetako gaztetxean bildutakoak. IBAN ARANTZABAL

**Dusminguet osatzen duten taldekideak berbenetatik eta ferietatik edandako musikariak dira. Aurreko astebururuan, plaza txiki bat, gaztetxea, "toreatzea" egokitu zitzaien taldearen ardatz Joan, Daniel eta Martiri; beste hiru musikarirekin batera, bi belarri eta buztana eraman zituzten.**

Lekuak ematen zuen parranda egiteko, eta halaxe izan zen lehenengo akordetik bertatik. Betebeteta zegoen gaztetxea, taldea gertutik ikusteko aukera paregabea eman zuten-eta gaztetxekoek. Luxua da entzuleondako autogestionatzen den areto batek horrelako taldeak ekartzea; horretarako egindako lana baloratu egin behar. Ea halaxe izaten jarraitzeko aukerarik dagoen berriro ere, ez da-eta erraza izango Dusminguetek egindako beste plazatan jo duen talderik aurkitzea. Estatuan, Zona reggae, Esparrago rock, Vic-eko Mercat de musica... eta ez bakarrik estatuan, baita Frantzian, Italian, Mexikon... Kataluniatik kanpora sona handiena lortu duen taldeari, Dusmingueti, Altaveu 00 deitzen den saria eman diote.

Ez dakit zenbateraino ziren ezagunak Euskal Herrian. Beharbada, bateron batzuek *Peret, Rey de la Rumba* diskoan parte hartu zuteneko kantua izango zuten gogoan, hala ere, kantu hori erraz ahazten da, Elgetan eskainitako errepertorioa ikusi eta gero; bi ordu inguruan jardun zuten giroa berotzen.

Dusminguetekoak parranda eragile izan ziren, eta era berean, parrandaren parte. Hizkuntzak ez zuen eragotzi hala izan zedin, eta komunikazioa lortu zuten katalanez abestu arren, izan ere, katalana ulertu barik ere, jendea dantzan eta adi zegoen.

**Dusminguetekoak parranda eragile izan ziren, eta era berean, parrandaren parte. Hizkuntzak ez zuen eragotzi hala izan zedin, eta komunikazioa lortu zuten katalanek**

Ekialdeko eta mendebaleko motxaileen folklorea entzun genuen. Reggae erritmoak oinarri direla esango nuke, eta horren gainean edozer eraikitzeko gai direla ikusi genuen, baita pasodoble eleganteak ere. Erritmo latindarrak bor-bor.

Bi diskoetako kantuak entzun genituen: *Vafalungo* diskokoak batzuk, eta gehienak *Postrof* diskokoak, Marokori eskainitakoak, hain zuzen ere. Azken lan hori Chefchaouen-en grabatu zuten, nolabait paraje haiek omentzeko asmoz; zuzenekoan ere nabari da ukitu marokoarra.

Dusminguetekoek erakutsi ziguten musika dela mundu aldrebes honetan geratzen zaigun beste ihesbide bat, seguruenik ez bakarra, baina bai oso kontuan izatekoa. Mestizaje musika horrekin, mundu zikin honen mugetatik haratago eramaten gaitu Dusminguetek, kolorez betetako mundura. Ez da banderarik txarrena.

IBAN ARANTZABAL

Nire aukera |

## Gurutze Mujika
### Margolari arrasatearra



Zinema oso gustuko dudan arren, aspaldian ezin izan naiz film bat ikustera joan. Dena dela, nire film gogokoenetariko bat aipatzekotan, *Otsoekin dantzan*, Kevin Costner-ena, nabarmenduko nuke. Nire film faboritoenetariko bat da hori. Igortzen duen mezuagatik gustatu zitzaidan batik bat: alegia, gizon batek, bakarrik egon arren, bere kabuz zelan egin dezakeen aurrera, eta bere ingurunearekin zelan moldatu daitekeen ikustea. Animaliekin, otsoekin, garatzen duen harremana ere harrigarria eta erakargarria iruditu zitzaidan.

### 'OTSOEKIN DANTZAN' Kevin Costner



LEIRE KORTABARRIA

Kaleratu berriak |

Iban Arantzabal

LIBURUA | *Bilduma*




GUTIZIAK
Askoren artean
Txalaparta, 2000
229 orrialde

Hogeita bederatzi euskal emakumeren gutiziak. Bilduman, emakumeak jaun eta jabe: Aurelia Arkotxa, Yolanda Arrieta, Begoña Bilbao, Itxaro Borda, Aitzpea Goenaga, Lierni Ibargutxi, Arantxa Iturbe, Pili Kaltzada, Mariasun Landa, Goizalde Landabaso, Amaia Lasa, Miren Agur Meabe, Lourdes Oñederra, Jasone Osoro, Idoia Etxeberria... (Arantxa Urretabizkaia falta da, esaterako). Ipuin gehienetan emakumeak dira protagonista, eta sexua eta maitasuna dira nagusi testuetan.

LIBURUA | *Definizioak*



ABARASKA
Rufino Iraola
Hiria
121 orrialde

Pentsamenduaren inguruan dihardu Rufino Iraolak Abaraska liburuan. Irakasle ikasketak egin arren, kazetaria da berez Iraola; hala ere, aforismoen tankeran eta berben gaineko orribeteko usteak batuz osatu du liburua, kazetaritzatik haratago. Jeneralean, definizioak luzeagoak badira ere, horrelakoak aurki ditzakegu: Barrearena: Bere buruari barre egiten ez dakiena ez da inoiz serioa izango, edozein garaitan egongo da-eta barregarri. Liburuari falta zaizkion gauzen artean: ordena alfabetikoa.

DISKOA | *Folk mingotsa*




PETTI
Arrazoiak
Gaztelupeko hotsak
11 kantu

Euskal Herriko agertokietan ezagun egin den ahots, gitarrista fin eta bluesman distiratsu eta grinatsu baten aurrean gaude, bizitzeko esperientziaren interpretazio poetiko bezain basatia egiten duen artistaren aurrean, hain zuzen ere. Folk basati gisa zehatz daitekeen estiloaren aitzindaria dela esan genezake. Arrazoiek ez dute bide errazik agintzen, bizitzan eta asko maite ditugun kontuekin sarri askotan gertatzen den moduan. *Petti, etxean izan behar den disko horietako bat.*

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko martxoaren 30a

# Martxoa: 30-5

**Edu Mendibil** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**ANTZUOLA**

> **Txan magoa** domekan, apirilak 1, zine aretoan, 18:00etan. Korrika Kulturalaren barne.

**ARRASATE**

> **Vaiven** taldearen *Lotsa-gabe* antzezlana domekan, apirilak 1, Amaia antzokian, 19:30ean.
> **Los Bordini** orekariak hilaren 30etik apirilaren 1era Laubide plazan, 20:30ean.

**BERGARA**

> **Zurriola** antzerki eskolako *Gure haurtzaroko lorategia* antzezlana datorren egubakoitzean, hilak 6, Novedades aretoan, 22:30ean.

**ELORRIO**

> **Vaiven** taldearen *Sin vergüenzas* antzezlana datorren egubakoitzean, apirilak 6, Arriola aretoan, 22:30ean.

**EIBAR**

> **Eibarko XXIV. antzerki jardunaldiak. Suripanta Teatro**ren *El inspector* egubakoitzean, hilak 30; **Traspasos** taldearen *Pepe el romano. La sombra blanca de Bernarda Alba* zapatuan, hilak 31, eta **Narruzko Zezen** taldearen eskutik, *Los Pelópidas* astelehenean, apirilak 4. Emanaldi guztiak Unibertsitate Laboralean, 20:30ean.

## Musika

**ARRASATE**

> **Haragi gordina** taldea datorren zapatuan, hilak 31, Amaia antzokian, 22:30ean. Korrika Kulturalaren barruan antolatuta.
> **Bandaren** emanaldia domekan, apirilak 1, plazan, 13:00ean.

**ANTZUOLA**

> **Skalariak** eta **Ceacocks** taldeak zapatuan, hilak 31, gaztetxean, 22:30ean.

**BERGARA**

> **Ki-sap** eta **Hamabi tribu** taldeak datorren egubakoitzean, hilak 6, gaztetxean, 23:00etan.

**ELORRIO**

> **Haragi gordina** taldea egubakoitzean, hilak 30, Arriola aretoan, 23:00etan.

## Erakusketak

**ARETXABALETA**

> **Idoia Elexpururen** margolanak Durana kaleko 30. zenbakiko erakusketa txokoan, domekara arte.

**ARRASATE**

> **Gure-Leku** tabernak deitutako margo lehiaketara aurkeztutako lanak tabernan daude ikusgai egunotan.

**BERGARA**

> **Jesus Mari Narvaez** margolariaren erakusketa Kultura Etxean, apirilaren 8a arte.
> ***Palestina komik*** erakusketa Nahikari tabernan, apirilaren 8a bitartean.
> **Ramon Arantzabal** margolari bergararraren erakusketa Donostiako alde zaharreko Colchoneria San Vicente tabernan.

**ELORRIO**

> **Mikel Berezibar** margolariaren *Beroyar* izenburuko olio erakusketa Arriola aretoko erakustokian.

## Lehiaketak

**BERGARA**

> **Txorimalo lehiaketa** Erramu Zapatuan, apirilaren 17an, Jardun elkarteak antolatuta. Edozeinek parte hartu dezake, eta adinaren arabera, hiru maila bereiztuko dira. Izena emateko azken eguna: apirilaren 2a. Argibideak 943 76 08 19 zenbakian.

## Ikastaroak

**OÑATI**

> **Erretzeari lagatzeko ikastaroa** apirilaren 23tik maiatzaren 28ra bitartean. Eskolak astelehenetan izango dira. Izena ematea (2.000 pezeta) apirilaren 10a arte udaleko Gizarte zerbitzuan edo 943 78 04 11 telefonora deituta.

## Deiak

**ARAMAIO**

> **Urrezko aizkora** txapelketaren kanporaketa zapatuan, 18:00etan. Gauean, pilota partidak, 22:00etan.

**ARRASATE**

> **Korrika.** Astelehenean, apirilak 1, Korrika Txikia, Zigarrolatik plazaraino, 15:30ean. Jarraian, dantzaldia plazan, Detraka taldearekin. Arratsaldeko 6etan txokolate jana izango da, eta 21:00etan afaria Musakolako hostalean, Lazkano eta Mañukorta bertsolariekin (txartelak Iratin, AEDn eta AEKn salgai). Goizeko 1:00ean Korrikari ongietorria egingo diote.
> **Donostiara irteera** apirilaren 7an, Txatxilipurdik antolatuta. Aquariumera bisita egingo dute eta txu-txu trenean ibili ondoren Kontxako badiatik itsasontzian ibilaldia egingo dute. Izena ematea eta argibideak Txatxilipurdin, 943 79 54 46 zenbakian.
> **Balmasedara irteera.** Zahar-Berri taldeak hilaren 31n Balmasedara joateko irteera antolatu du, Erdi Aroko azoka ikustera. Irteera 9:30ean egingo dute Arbolapetatik. Argibideak 943 71 21 17 telefonoan.
> **Hitzaldia.** *Una unidad de rehabilitación comunitaria.* Hizlaria: Blanca Morera, Aita Menniko egonaldi ertainetako unitateko arduradun klinikoa. Astelehenean, hilak 2, Monterronen, 18:30ean.
> **Hitzaldia.** *Etxebizitza duina eta denontzat.* Hizlaria: Nekane Jurado, Eusko Jaurlaritzako ekonomialaria. Denontzat plataformak antolatuta. Martitzenean, hilak 3, udaletxeko pleno aretoan, 19:00etan.
> **Hitzaldia.** *Berdintasunetik eta zuzentasunetik begiraturik, eskolan eta familian giza harremanak.* Hizlaria: Begoña Salas, hezkidetzan nazioarteko aditua. Martitzenean, hilak 3, Monterronen, 19:00etan.
> **Zapatisten karabanari buruzko diapositiba emanaldia eta hitzaldia** Manu Fernandezen eskutik (han egondakoa) eguaztenean, apirilak 4, frantziskotarren lokalean, Sebero Altuben, 19:00etan. Komite Internazionalistak taldeak antolatuta.
> **Ikusentzunezkoa.** *Pirinioak armonian.* Egilea: Jose Ramon Agirre "Marron". Eguaztenean Kultura Etxean, 19:30ean.

**ARETXABALETA**

> **Mendi irteera.** Murrukixo eta Zaraia mendi elkarteek Korrikaren aldeko mendi irteera antolatu dute igandérako, apirilak 1. Ibilbidea honako hau izango da: Apotza,

**HIRUGARREN SEKTOREKO ZERBITZUAK ERABILTZEKO, ETXALUZE ETA ZALDISPE ARTEKO HIRIGUNEAN, U.12.3 - A.12 POLIGONOA PLANIFIKATZEKO BEHARREN AZTERKETA**

Arrasateko Udalak, (Cerrajera zenaren eremuan) U.12.3 - A.12 poligonoa behar bezala planifikatzerakoan benetako beharretara egokitutako informazioa izan dadin, interesdun izan daitezkeenei eskatzen die zerbitzuak erabiltzeko zer lokal behar duten planteatzeko, premisa hauen arabera:

KATALOGAZIOA

Oe-SV Hirugarren sektoreko zerbitzuak

1. 6.000 m²ko azalera eraikia, eraikin batean.

2. Eraikuntza tipologia: perfil libreko eraikuntza bati dagokio, zerbitzuetarako eta hirugarren sektoreko jarduoretarako, jabetza bakarrekoa, horizontala, mankomunatua izateko nahiz alokairu erregimenean. Hauxe da zerrenda: bulegoak, merkataritza, establezimendu publikoak, ostalaritza eta ekipamendu pribatuak.

Informazioa biltzeko fitxak Arrasateko Udaleko Hirigintza sailean dituzu eskuragarri, iragarki hauxe argitaratzen den egunetik, eta sail horretan bertan entregatu behar dira 2001eko apirilaren 30ª baino lehen.

ARRASATEKO UDALA

Enplegu Zerbitzua



MUSIKA

### ANJE DUHALDE

Lorâmendi euskara elkarteak antolatuta, Anje Duhalderen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Aretxabaletan, 22:30etan. Anje Duhaldek Georges Brassens Okzitaniako musikari ospetsuaren kantuekin zuzeneko diskoa grabatu zuen Baionan joan zen otsailean. Arrangoitzeko kantariak 18 kantu bildu ditu Elkarlanean argitaletxeak kaleratuko duen diskoan, guztiak euskaraturik. Beraz, kantu intimisten emanaldia izango da gaurkoa.

**Noiz:** Martxoaren 30ean. **Tokia:** Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako aretoan. **Ordua:** 22:30etan.



## Erakusketa

Jesus Mari Narvaezen margo erakusketa
Bergarako Kultura Etxean

Martxoaren 30etik apirilaren 8ra

Asensiomendi, Untzila eta Isurieta. Irteera 9:00etan egingo dute plazatik.

### BERGARA

> **Hitzaldia:** *Religión y religiosidad* astelehenean, apirilak 2, Miguel Altuna institutuko aretoan, 19:30ean. Hizlaria: Xabier Andonegi, Donostiako Erlijio Zientzien Institutuko zuzendaria.

> **San Joxepeko batzar orokorra** eguenean, hilak 5, San Joxepe hirugarren adinekoen elkartean, 17:00etan.

> **Kafe tertulia.** Egubakoitzean, hilak 30, *Zer da autogestioa?* aztertuko dute, gaztetxean, 22:30ean. Domekan, hilak 1, *Euskara eta gazteak* izango da aztergai, gaztetxean bertan, 21:30ean. EHEk eta Gazte Asanbladak antolatuta.

> **Euskal Herriko gazte asanbladen topaketa** apirilaren 7an Usurbilen. Autobus txartelak Arranon eta Pol-Polen.

> **Liburu aurkezpena.** Eneko Landabururen *¡Cuídate compa! Manual para autogestionarse la salud* liburua aurkeztuko dute eguaztenean, hilak 4, Kultura Etxean, 18:00etan.

> **Gazte auzolandegiak.** Izena ematea apirilaren 6ra arte zabalik dago Kutxako bulegoetan. Argibide gehiago 943 77 91 57 edo 943 02 29 64 telefono zenbakietan.

> **Bakearen aldeko ibilaldia Arantzazura,** Donostiako Elizbarrutiak antolatuta, apirilaren 7an. Txartelak 1.100 pezetan salgai apirilaren 4ra arte, ondoko tokietan: Garitano tabako dendan (Zubiaurren), Agirrebeña dendan (San Antonion), Zatoia dendan (Barrenkalean) edo Urriategi tabako dendan (Mugertzan). Apirilaren 7an autobusa 7:40an aterako da autobus geltokitik.

> **Mendi kanpaldia Pirinioetan,** Aste Santuan, apirilaren 12tik 16ra, gaztetxoei zuzenduta. Aurtengo kanpaldia Restanca inguruan izango da. Izena emateko epea apirilaren 5ean bukatuko da. Argibideak Pol-Polen.

### ELGETA

> **Ikus-entzunezkoa.** *Afrika: Atlantikotik Indikora,* Imanol Ugarteren eskutik, gaur, egubakoitza, gaztetxean, 21:30ean.

### ESKORIATZA

> **Hitzaldia.** *Musikoterapia.* Astelehenean, hilak 2, Jose Arana ikastolan (Ganuza etxean), 19:30etan.

> **Hitzaldia.** *0-6 urte bitarteko haurrak.* Hizlaria: Jesus Arranz pediatra. Eguaztenean, apirilak 4, Jose Arana ikastolan (Ganuza etxean), 18:30ean.

> **Ikusentzunezkoa.** *Munduari itzulia belauntzian 17 urtetan.* Egilea: Santi Gonzalez.

# Zinema

**ARRASATE / ALAI ZINEMA**

***South park***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.

***No te fallaré***
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00,19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**ARETXABALETA / KULTUR ETXEA**

***Taxi driver***
Eguena, zine-kluba: 22:30.

**BERGARA / NOVEDADES**

***Hannibal***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

***La ventana indiscreta***
Eguena, Forum Cinematographe: 21:30.

**OÑATI / SANTANA**

***Family man***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***102 dálmatas***
Domeka: 17:00.

***Trabajos de amor perdidos***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**EIBAR**
**UNZAGA**

***Todos los caballos bellos***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

***Traffic***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00,19:45, 22:30.
Domeka: 17:00,19:45, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA**

***Límite vertical***
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

***Ametsen lapurra***
Domeka: 16:30.

***Nacional 7,***
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**ELORRIO / ARRIOLA**

***La bendición***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

**AZKOITIA / BAZTARTXO**

***Prueba de vida***
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

***¿En qué piensan las mujeres?***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 19:45, 22:45.

***Tigre y dragón***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Hannibal***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 20:00, 22:30.

***13 días***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Colega, ¿dónde está mi coche?***
Egubakoitzatik eguenera: 17:30.

***Todos los caballos bellos***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Titanes***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguena: 17:30, 22:30.

***Torrente 2: Misión en Marbella***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Rufufú***
Eguena (Montehermoso zikloa): 19:45.

**MIKELDI ZINEMAK**

***Colega, ¿dónde está mi coche?***
Zapatua: 16:15, 18:00.
Domeka: 16:00, 17:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00.

***Malena***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Billy Elliot***
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Torrente 2: Misión en Marbella***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***¿En qué piensan las mujeres?***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Tigre y dragón***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Chocolat***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Hannibal***
Egunero: 17:00.

***13 días***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 19:45, 22:30.

***Gladiator***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 23:00.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 22:00.

***Titanes, hicieron historia***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**MIKELDI ZINEMA**

***Antes que anochezca***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

***Antes que anochezca***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***La cena***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Traffic***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Amores perros***
Egubakoitzatik eguenera: 16:45, 19:45, 22:45.

***Gracias por el chocolate***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***15 minutos***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El cielo abierto***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.




**HANNIBAL**
**ZUZENDARIA: RIDLEY SCOTT. AKTOREAK: ANTHONY HOPKINS, JULIANNE MOORE, RAY LIOTTA. > 18 URTE**
*Bildotsen isiltasuna* film arrakastatsuaren bigarren zatia, nahiz eta orduko banaketatik Anthony Hopkins aktorea (*Hannibal Lecter* psikopata beldurgarria modura) bakarrik mantendu. Oraingo honetan Ridley Scott britainiarrak (*Gladiator*) egin ditu zuzendari lanak, Jonathan Demme ordezkatuz. *Hannibal* Italian, Florentzian bizi da eta, denek espero bezala, *Clarice* (Julianne Moore) FBIko agentearekin topo egingo du...

**TRABAJOS DE AMOR PERDIDOS**
**ZUZENDARIA: KENNETH BRANAGH. AKTOREAK: KENNETH BRANAGH, ALICIA SILVERSTONE, ALESSANDRO NIVOLA. > 13 URTE**
Beste batzuetan egin duen bezala (*Hamlet, En lo más crudo del crudo invierno*), Kenneth Branagh aktore eta zuzendariak Shakespeare idazle handiaren lan bat egokitu du. Bide batez, film musikalei omenaldia egin nahi izan die zuzendari britainiarrak, pixkanaka-pixkanaka alaitasuna nagusitzen delarik. Jatorrizko bertsioan ikusteko aukera.

Martitzenean Kultura Etxean, 19:30ean.

### OÑATI

> **Txantxiku ikastolak gurasoei**. Atzerritar hizkuntzak lantzeko udaleku eta egonaldietan parte hartzeko izena emateko epea, apirilaren 11ra arte dagoela zabalik.

> **Herriko musika taldeei** eguaztenean, hilak 4, udaletxean 19:00etan egingo duten bileran parte hartzeko deia.

> **Korrika.** Domekan, hilak 1, kale animazioa 19:00etan. Astelehenean, hilak 2, herri kirolak Olaiturrin, 14:30ean, Korrika txikia 15:00etan eta buruhandi eta erraldoiak 18:30ean. Jarraian trikipoteoa eta gauerdi aldera Korrikari ongi-etorria.

> **Ikusentzunezkoa.** *Trilojia Eskandinabian*, Josu Iztuetaren eskutik, eguenean, ETEOko aretoan, 19:30ean.

### EIBAR

> **Hitzaldia.** *Diálogo entre historiadores: la 2ª república.* Hizlariak: Juan Pablo Fusi eta Paul Preston historialariak. Eguenean, apirilak 5, Portalean, 19:30ean.

> **Hitzaldia.** *The Beatles:what were they singing about?* (ingelesez). Hizlaria: Steve Bilsborough irakaslea. Eguaztenean, hilak 4, Ignacio Zuloaga ikastetxeko aretoan, 19:00etan. Hizkuntza Eskola Ofizialak antolatuta.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

BERGARAN, *Berrigara*ren egoitzan, Barrenkalea, 33
943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31
943 71 25 11

ARETXABALETAN, *Aretxagazeta*ren egoitzan; Durana, 11
943 79 86 21

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11
945 44 50 22

ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salbador, 26
943 76 81 90

ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kalebarren, 1
943 76 60 62



Goienkaria,
bailarako
hedabide nagusia.

Astero
20.000 etxetan.

Prezioa:
10.000 pezeta.

## JAIOTAKOAK

**Iraitz Sarabia Landa**
Arrasaten, martxoaren 13an.

**Naroa Herrero Lopez**
Bergaran, martxoaren 16an.

**Mikel Ezeiza Barrutia**
Eskoriatzan, martxoaren 17an.

**Maddi Bengoa Arregi**
Bergaran, martxoaren 20an.

**Jairo Gallego Sanchez**
Oñatin, martxoaren 20an.

**Haritz Diaz de Gereñu Ortueta**
Eskoriatzan, martxoaren 21ean.

**Gaizka Gantxegi Gabilondo**
Bergaran, martxoaren 22an.

**Ibai Caballero Casatorre**
Arrasaten, martxoaren 22an.

**Amaia Irure Aiastui**
Aretxabaletan, martxoaren 24an.

**Gorka Zumalde Etxabe**
Aretxabaletan, martxoaren 24an.

## HILDAKOAK

**Jose Maria Zubiagirre Uriarte**
Oñatin, martxoaren 21ean,
70 urte zituela.

**Manuel Romero Carmona**
Arrasaten, martxoaren 21ean,
69 urte zituela.

**Dominica Isasisasmendi Arriola**
Bergaran, martxoaren 22an,
92 urte zituela.

**Maria de los Angeles Herrera Gonzalez**
Arrasaten, martxoaren 24an,
89 urte zituela.

**Jose Maria Alkorta Mujika**
Bergaran, martxoaren 24an,
94 urte zituela.

**Jacinta Larrañaga Arantzabal**
Arrasaten, martxoaren 25ean,
92 urte zituela.

**Benito Beitialarringoitia Beitialarringoitia**
Gatzagan, martxoaren 25ean,
87 urte zituela.

**Mertxe Arriaran Larrañaga**
Oñatin, martxoaren 27an,
74 urte zituela.

**Maria Rosario Egaña Murua**
Oñatin, martxoaren 27an,
70 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Iñaki Abasolo Olazabal** eta **Nerea Zugasti Iñarra**, martxoaren 24an, Arrasaten.

**Enrike Salas Bein** eta **Leire Ojanguren Bedia**, martxoaren 24an, Arrasaten.

**Jonathan Nicholas McNeill** eta **Maria Pilar Montaña Barreiro**, martxoaren 28an, Arrasaten.



**Ibai Caballero Casatorre** eta **Anabel** ama, mondragoetarrak biak. Ibai martxoaren 22an jaio zen, eta 3,790 kilo pisatu zuen. **Isi** da aita, mondragoetarra bera ere.



**Maddi Bengoa Arregi** bergararra eta **Zorione**, ama, mondragoetarra. Martxoaren 20an jaio zen Maddi, eta 3,500 kilo pisatu zuen. **Jabi** da aita, bergararra.



**Haritz Diaz de Gereñu Ortueta, Agurtzane** ama eta **Ioritz** anaiarekin, eskoriatzarrak hirurak. Haritz martxoaren 21ean jaio zen, eta 4,150 kilo pisatu zuen. **Joxean** da aita, eskoriatzarra bera ere.



**Mikel Axpe Iruregi** eta **Olga** ama, aramaioarrak. Martxoaren 27an jaio zen Mikel, eta 3,100 kilo pisatu zuen. **Aitor** da aita, aramaioarra bera ere.



**Jon Fernandez Alzelai** antzuolarra, **Mikel** anaiarekin eta **Alaitz** lagunarekin. Martxoaren 27an jaio zen Jon, eta 3,110 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Olatz** eta **Fernando** dira, antzuolarra ama eta aita, berriz, bergararra.



**Gaizka Gantxegi Gabilondo** bergararra **Amaia** lehengusinaren besoetan. Martxoaren 22an jaio zen Gaizka, eta 2,850 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Bego** eta **Imanol** dira; ama atxabaltarra da, eta aita, berriz, bergararra.



**Gorka Zumalde Etxabe** atxabaltarra martxoaren 24an jaio zen, eta 3,870 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Bea** eta **Iñaki** dira, atxabaltarrak biak.

### URTEURRENA

**Petra**
**Agirre Gonzalez de Durana**



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 8,
11:30ean,
Bergarako Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

**Felisa**
**Agirre Gonzalez de Durana**



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 15,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

**Manuel**
**Gallastegi Elejalde**

*2000.eko martxoren 30ean hil zen*



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 1,
11:30ean, Arrasateko,
San Isidro elizan (Musakola).

*Haren emazteak, seme-alabek eta bilobek otoitz bat eskatzen dizuete haren animaren alde eta domekan, apirilak 1, 11:30etan Musakolako San Isidro elizan izango den mezara etor zaiteztela.*
*Guztioi, aldez aurretik esker on.*



# Hitz gurutzatuak

Luma



**Ezker eskuma**

1/ Erdipurdiko. 2/ Babazorro. Gehiegi. 3/ Galdetzaile bat. Dantza-mota. 4.- Ergela. Kanpo, landa. 5/ Neba. Fruta-mota. 6/ Toka, naiz. Lur.7/ Tona. Suitzako aintzira. Masurioa, 8/ Omen. Istu Batrazio-mota. 9/ Ilunabarra. Urrea. 10/ Esnea jasotzeko zurezko ontzia. Alderdi karlista.

**Goitik behera**

1/ Nazkagarriak. 2/ Animalia adarduna. Garoa. 3/ Gipuzkoako herria. Oriaren erdian. 4/ Lehen biak. Txartelak. 5/ Habeartea. Isilik. 6/ Fruta-mota. Zarnoiako ibilgailuetan. Atzizkia. 7/ Hidrogenoa. Europako lurraldeko iparraldekoena. 8/ Bilo. Iridioa. Kontsonantea. Bokala. 9/ Katuaren umeak. 10/ Heldu. Sexu emea.

# Bila-bila 7





# Umore giroan

Izaro Aperribai

**BI BILBOTAR**

Bi bilbotar Indautxun txikiteuan, eta auto kontzesionario baten aurretik pasatu die. Batek esan dotsa bestiari:
— Hi, ointxe akordau nok BMW bat erosi bihar dotela. Guaztak barrura.
Sartu die kontzesionariora eta:
— BMW deskapotablea gustatzen jat. Zenbat balio dau?
— Zazpi milioi.
— Ondo da, ipinidazu.
Sartu dau eskua poltsikuan eta beste lagunak:
— Hi, geldi, erronda hau neure kontu!

**KATARRUAKIN**

Joxe eta Mikel elkartu die kalian:
— Joño, zer moduz Mikel?
— Ondo, ondo, katarro pixkatekin.
— Eta andria?
— Andria beste batekin
— Zeiñekin?
— Ez, ez, andria be katarruakin, je, je, je.
Hurrengo egunian elkartu da Joxe beste lagun batekin eta honek galdetu dotsa:
— Aupa, zela joiak ba Joxe?
— Ondo, baiña katarro apur batekin najak.
— Eta andria?
— Andria beste batekin.
— Eskerrak konturatu haizela, gu ez giñuztan atrebitzen ezer esaten-eta.

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



**Zenbat metro kubiko ditu Urkuluk?**

Urkuluko urtegitik eramaten da gaur egun ura bailarako ia herri guztietara. Asmatuko ote zenuke zenbat metro kubiko dituen?

- 500.000
- 10 milioi
- 66 milioi

**Erantzun zuzena:** 10 milioi.

**Soluzioak**



**Ezker eskuma**

1/ Nolanahiko. 2/ Arabar. Lae. 3/ Zer. Baleta. 4/ Kirtena. At. 5/ Anaia. Piku. 6/ Nauk. Zoru. 7/ Leman. Ma. 8/ Ei. Tu. Igel. 9/ Arratsa. Au. 10/ Kaiku. EKA.

**Goitik behera**

1/ Nazkanteak. Oreina. Ira. 3/ Larraul. Ri. 4/ Ab. Tiketak. 5/ Nabea. Mutu. 6/ Aran. Za. Sa. 7/ H. Laponia. 8/ Ile. Ir. G. E. 9/ Katakumeak. 10/ Oratu. Alua.

# Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Lehengoetara itzuliko zara. Ez izan ardurak hartzearen beldur eta aurre egin ondorioei.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Edozertan babesa emango dizuten kideak aurkituko dituzu. Zaindu eta gorde itzazu, egonkortasuna emango dizute eta.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Aldaketak handiak hasiko dira, eta zure gauzak gordetzeko beste leku bat topatu beharko duzu. Eutsi presioari.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Zerbitzurako daukazun gaitasunak beharrezko lekuan egonaraziko zaitu. Besteen harremanetan bitartekaritza lanak egingo dituzu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Zure joko eremua zabaldu egingo da, baina oraindik proposamenei adi egon behar duzu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Emaitza onak izango dituzula pentsaraziko dizuten inbertsioak datozkizu, baina uste baino luzeago joko du kontuak.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Jendearekin liskarrak edukiarazten dizuten bulkadak zaindu beharko dituzu. Bestela egoera arriskutsuei aurre egin beharko diezu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Zure jarduera gogorrak erresumina eragingo dizu. Moteldu zure eginbeharra eta hartu atseden.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Zure asmoak gauzatzeko esparruen bila beti. Eman iezaiezu denbora hazi eta loratzeko.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Senditartean dagoen giroa gustukoa izango duzu. Goza ezazu orain eta utzi alferkeria alde batera zerbait egin behar duzunean.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Oraindik kokapenaren bila dabilen buru argitasun handia. Azalerazten uzten ez badizute goibel ibiliko zara.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Utzi zaurietatik zorne guztia ateratzen, horrela bakarrik izango zara nahi duzuna egiteko aske.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko martxoaren 30a

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com**

## Telebegi

### *Bat gutxiago*

Arrasateko etxian telebisiño kate bat gutxiago ikusten dot "granhermano" hasi danetik. Oindio, behintzat, boikota egitten jat saio ziztrin horri. Amaren etxera juten naizenian, beste horrenbeste pasatzen jat, baiña han ez da "granhermano" horrengaittik; GOITB ezin dalako ikusi da. Batek baiño gehixagok galdetu dost "Antzuolan zergaittik ez dan ikusten GOITB". Bergaran, Elgetan eta Oñatin, hango udalek dirua jartzian zain ei dare, Antzuolan, ordia, udalak emon dau bihar dan dirua, baiña antenia (momentuz) ezin dala ipiñi, eta Leintz aldian bizi direnak baiño kate bat gutxiago daukogu.

Telebisiñoko "manduakin" bueltaka ibiltzen naiz egun honetan bosta salto egitten, eta martitzen gabian ETBn euskarazko katian geratu nitzan. Mañukorta irten zan, "Yo Klaudiokin" Interneteko nabigatzaile adittu modura. Mañukortak, gaiñera, "baietz", bera "xagu kontutan azkarra izan dala beti, umetan be, askotan jardun zebala xaguak harrapatzen eta hortik datorkixola zaletasuna". Euskaldun modernuak! Eta horren modernuak izanda, *Torrente 2*ren aurkezpenera aurreratu ziren eta haren moduan jantzi ziren: hori bai itxuria, Mañu: guardia zibillek erabiltzen dittuen antiojuak, lastozko burukua eta plaietan ligatzeko erabiltzen dittuen loradun alkondaria. Eskerrak "Yo Klaudio"k eta Eguzkitzek be jantzi zittuzten eta baitta Sorgiñen Laratzak egin daben fitxajerik onenak be: Mikel Elizegi.

"Granhermano" baiño dibertigarrixagua da, bai, euskal umoria! Ala "plagio" umoria deittu bihar jako?


Marijo Deogracias

## Alkatearekin berbetan

Eguaztena, 21:05ean

### Patxi Basauri geurean



*Alkatearekin berbetan* saioan Patxi Basauri Elgetako alkatea izango da datorren eguaztenean. Eta Patxirekin batera, Iban Arantzabal, *Goienkaria*ko produkzio arduraduna, eta Oxel Erostarbe, *Goibekokale*ko erredakzio kontseiluko kidea. Besteak beste, Elgetako Udalak onartzeko dituen aurrekontuez, Elgetan egingo diren etxebizitza berriez eta Espaloia antzokiaz berba egingo dute luze eta zabal. Betiko moduan, Saioa Ojanguren kazetariak zuzendu eta gidatuko du *Alkatearekin berbetan* saioa.

## Astebete

Egubakoitza, 21:05ean

### Non dago muga?

Non dago muga? Atzegizalerik ez dagoen lekuan. Horixe da aurten Atzegik bere kanpainan erabili duen leloa. *Astebete* saioan tarte berezia eskainiko diogu, Debagoieneko Atzegiko ordezkari Marixabel Isasmendi izango dugu-eta gure artean. Baina, ez da gaurko saioko protagonista bakarra izango. Paulo Antxia atxabaltarra ezagutzeko aukera ere izango dugu. Atzegiko kide da aspalditik Paulo. Pauloren egun bat zelakoa den ikusiko dugu. Marijo Deogracias kazetariak zuzendu eta gidatuko du *Astebete* saioa. Marijorekin batera, Eneko Azkarate *Goienkaria*ko zuzendaria ere egongo da.

## Kirol emanaldia

Domeka, 12:00etan

### Liderra Atxabalpen

Zapatuan, GOITBko kamerak Atxabalperaino hurbilduko dira Mondra eta Amaikak Bat taldeen arteko partidua grabatzera. Arrasateko taldeak ez dauka ezer jokoan, baina Amaikak Bat taldeak lidertzari eutsi gura badio, norgehiagoka irabazi egin beharko du. Hala ere, etxeko taldearendako oso partidu garrantzitsua izango da; izan ere, Mondraren helburua mailaz igotzea da, eta oraingo denboraldian posible ez bada ere, komenigarria da liderraren aurka indarrak neurtu, eta datorren denboraldiari begira zer hobetu behar den ikustea. Zeingehiagoka zaila izango da, baina Mondrak bere benetako maila goiko taldeen aurka erakusten du.

GOITB Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Martxoak 30-Apirilak 5

| EGUBAKOITZA 30 | ZAPATUA 31 | DOMEKA 1 | ASTELEHENA 2 | MARTITZENA 3 | EGUAZTENA 4 | EGUENA 5 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30<br>**Albiste aurrerapena**<br>13:40<br>**Gatza eta berakatza**<br>13:50<br>**Sarrera doan** (errepikapena)<br>20:00/20:30:<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Non-zer**<br>20:35<br>**Berriak**<br>21:05<br>**Astebete**<br>21:30<br>**Soinuz blai** | 13:30<br>**Saioen errepikapena**<br>*Gatza eta berakatza, Ekilan, Goibegirada, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 12:00<br>**Futbola: Mondra-Hamaikak Bat**<br>13:30<br>**Saioen errepikapena**<br>*Gatza eta berakatza, Ekilan, Goibegirada, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30<br>**Albiste aurrerapena**<br>13:40<br>**Gatza eta berakatza**<br>13:50<br>**Astebete**<br>14:15<br>**Futbola: Mondra-Hamaikak Bat**<br>19:45<br>**Gatza eta berakatza**<br>20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Non-zer**<br>20:35<br>**Berriak**<br>21:05<br>**Goienasport** | 13:30<br>**Albiste aurrerapena**<br>13:40<br>**Gatza eta berakatza**<br>13:50<br>**Goienasport**<br>19:45<br>**Gatza eta berakatza**<br>20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Non-zer**<br>20:35<br>**Berriak**<br>21:05<br>**Xeleberri**<br>21:30<br>**Korrika 2001** | 13:30<br>**Albiste aurrerapena**<br>13:40<br>**Gatza eta berakatza**<br>13:50<br>**Xeleberri**<br>14:15<br>**Korrika 2001**<br>19:45<br>**Gatza eta berakatza**<br>20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Non-zer**<br>20:35<br>**Berriak**<br>21:05<br>**Alkatearekin berbetan** | 13:30<br>**Albiste aurrerapena**<br>13:40<br>**Gatza eta berakatza**<br>13:50<br>**Alkatearekin berbetan**<br>19:45<br>**Gatza eta berakatza**<br>20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Non-zer**<br>20:35<br>**Berriak**<br>21:05<br>**Sarrera doan**<br>21:05<br>**Soinuz blai** |

## Barruko kontuak

### KORRIKA 2001

Martitzenean, tarte berezia egingo diogu Korrikari. Debagoienera helduko da Korrika apirilaren 2an. Bergarara 21:12ean helduko da, eta Leintz Gatzagara 03:24ean. Gure kamarek Korrikarekin batera egingo dute ibilbidea, eta martitzenean gaueko 21:30ean saio berezia eskainiko dizuegu. Beraz aukera paregabea eskaintzen dizu GOITBk, Korrikak bailaran izango duen jarraipena ikusteko.

### LASTER, BEKADUNAK

Sei bekadun iritsiko dira laster Goiena Telebistara. Horietatik bi, Mondragon Unibertsitatekoak izango dira, eta beste lau Andoaingo soinu eta irudi eskolakoak. Bekadun etorriko direnez, ikastea izango da euren zeregin nagusiena. Laster, hortaz, herrian ikusiko dituzue kameralari. Ezin ukatu telebista honetan lanean dihardugunok laguntza paregabea jasotzen dugula ikasle horiengandik.

## Kamera aurrean



*"Esaten ziguten: etorriko da garaia informazio lokalak sekulako garrantzia hartuko duena. Bueno, etorri da hori"*

**Elixabete Garmendia** | ETBko kazetaria

"GOIBEGIRADA" (2001-03-28)



*"Langileek apustu inportantea egin zuten, laneko instrumentu guztiak %94 euskararatzea erabakitzean"*

**J. Jesus Alberdi** | "Elay" taldeko zuzendari industriala

"EKILAN" (2001-03-27)

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE

UNITED COLORS
OF BENETTON.

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak



*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Mikel Laskurain/Aktorea

**Zelan definituko zenuke zeure burua?**

— Pertsona lasaia naiz, langilea, baikorra, euskalduna eta laguntzalea.

**— Zergatik aktore?**

– Erdi kasualitatez. Ikastaro bat egin nuen institutuan, eta UBI bukatu nuenean, ni baino lehenago Donostiara antzerkia ikastera joandako bi lagunek animatu ninduten. Hasiera baten, irakasle eta antzerki ikasketak batera egin nahi nituen, baina zail egiten zitzaidan. Hortaz, antzerkiarekin bakarrik geratu nintzen.

**— Badago euskal zinemarik?**

— Film laburrak badaude, baina film luzerik ez. Zinema oso garestia da, eta hori amortizatzeko kanpora irten beharra dago. Euskal zinema hemengo jendeak hemengo dirulaguntzekin egindako zinema da, euskaraz edo gaztelaniaz izan.

**— Zein da antzerkiaren egoera Euskal Herrian?**

— Badirudi hobera doala. Antzerki taldeak geroago eta gehiago profesionalizatzen dira. Antzerki talde berriak sortzea, ordea, geroago eta zailagoa da. Merkatua geroz eta zorrotzagoa da, eta hutsetik hastea nahiko zaila da.

**— Zer nahiago: telebista ala antzerkia? Zergatik?**

— Antzerkia. Freskoagoa eta gordinagoa da.

**— Zer duzu gustukoen zure lanbidetik?**

— Oso aldakorra dela egun batetik besterakoa, nahiz eta ikuskizun berarekin bi urtez segidan ibili.

**— Antzezlan batek zer behar du arrakastatsua izateko?**

— Testu ona, zuzendaritza lan ona, argiztapen egokia, jantzi egokiak, eszenografia ona, banatzaile ona, marketin egokia, aktore onak... Zerbaitetan kale eginez gero, antzezlana ez da hain biribila izango. Denean asmatzea, ordea, oso zaila da: loteria tokatzea modukoa.

**— ETBk zergatik ez du egiten euskarazko telesailen aldeko apustu handiagoa?**

— Entzun dudanagatik, momentuz, ETBn ez dira telesail gehiago egingo gaztelaniaz. Euskaraz, berriz, oraintsu hasi dira *Hasiberriak* grabatzen, eta baita *Kosmopolitan* ere. Gaztelaniaz oso lehiakortasun handia dago, eta zaila da telesail horien ikusle kopuruari aurre egitea.

**— Orain, zer duzu esku artean?**

— Antzerki lan bat prestatzen dihardugu: *Oihanaren legea*. Maiatzaren 11n estreinatuko dugu Tolosan.

**— Zaletasunak?**

— Baratzea lantzea, mendira joatea eta lagunekin irtetea.



**"Antzerkian, denean asmatzea oso zaila da: loteria tokatzea modukoa"**

**"Antzerki talde berriak sortzea geroago eta zailagoa da"**

**"Euskal zinema hemengo jendeak hemengo dirulaguntzekin egindako zinema da, euskaraz edo gaztelaniaz izan"**

► *Bergararra / 35 urte / Aktorea*

## AIPAGARRI



**MARIMAR MARTIN**
**Mondragoe / Ibai Arteko lehendakaria**

Ibai Artek, Arrasateko dendarien elkarteak, zuzendaritza berriztu du. ZR dendako Marimar Martin izango da presidentea. Titare dendako Olatz Azkarraga, berriz, presidenteordea, eta Beinke dendako Kristina Arriaran idazkaria. Orain arte Mertxe Trojaola izan da Ibai Arteko burua.



**ALBERTO IÑURRATEGI**
**Aretxabaleta / Mendizalea**

Aste honetan iragarri du AG-I mendia igotzeko saiakera egingo duela ekainean. Himalaya, Jordania, Zeelanda Berria, Sahara eta Estatu Batuetan barrena eramango duten espedizioetan hartutako irudiak ETBko "Mendia Mundu" dokumentalean eskainiko dituzte. Espedizioan, besteak beste, Jon Lazkano eskalatzaile bergararrak eta Asier Aranguren kazetari atxabaltarrak ere hartuko dute parte.

